



Eskualdeko lau gudari hil zituzten Zirardamendiko frontearen, 1936an. Oraintsu, gorazarre egin diete. ▶22-23

Txus Delgadok Sopela Kosta Fest jaialdian aurkeztu du *Big wave in the Basque Country* surf-dokumentala. Berrito proiektatuko dute barikuan. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



32. zenbakia

2015eko
urriaren 1etik
urriaren 7ra arte



«Kanta berriak egiten hasi nahi dut»

Tania de Sousak kontzertua eman zuen Sopela Kosta Fest jaialdian; beragaz berba egiteko aukera izan dugu. ▶16-17



HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Burdina gogoan

Burdinak garrantzi handia izan du Uribe Kostaren, eta, oro har, Bizkaia-aren, garapenean. Hori dela eta, Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak burdina izango dute oinarri; urrian hamaika jardura egingo dira, besteak beste, gure eskualdean ere bai. ▶10

HERRIZ HERRI PLENTZIA

Hiribilduaren sorrera oroitzuz

Plentziak 716 urte beteko ditu aurten; hori gogoratzeko, egun biko egitaraua antolatu du Udalak, herriko elkarteak batera. ▶9

KULTURA URIBE KOSTA

Berbalaguna izateko, prest?

Euskarazko berba-taldeak osatzeko lagun bila dabiltza eskualdeko euskara elkarte, eragile eta erakundeak. ▶11

Hezetasuna auzoko Iturribarri inguruko landa urbanizatzeko prozesuaren atzerako kontaketa daborduko hasi da. ▶2

Pinosolo auzia artxibatu du Bizkaiko Lurralde Auzitegiko fiskalak, zortzi hilabetez ikerketzen ibili ostean. ▶6

Inkestas Rock hartuko du Sopelak aste-akabuan: 17 taldek joko dute plazan, eta Kaos Sessionek Laiak-en. ▶7

Erandioztarrek luzaroan gordetako kantak, herritarren eskura ipini ditu Udalak, *Haran handiaren doinuak* diskoan. ▶14

Getxo

Urbanizatzeko prozesuaren atzerako kontaketa hasi da

Iturribarri inguruko landak husteko epea urriaren erdialdera arte luzatu dute. Makinak bertan daude daborduko.

A lgortako Iturribarri ingurua urbanizatzeko lanen hasierarako atzerako kontaketa martxan da. Irailean, eremu berde horretan dauden ortu guztiak husteko agindua zuen gutuna jaso zuten auzokideek, «berehala martxan jarriko duten urbanizazio-prozesua dela eta». BYCAM enpresak igorri zuen mezu hori, eta irailaren 25a baino lehen landak husteko epea eman zien ortuak dauzkaten lagunei. Hala ere, horiek uzta jaso ahal izateko epea luzatzeko eskatu zioten obrako nagusiari. Horrek, hasiera batean, lan horiek azaroaren erdialdera arte itxarongo zutela berba eman zien; oster, enpresa eraikitzaileak «presioa sartu» eta epe hori urriaren erdialdera arte laburtu diela salatu dute Leire Azkargorta eta Jabi Peña Hezetasuna Auzoko Bizilagunen Taldeko kideek.

Iturribarriko landetako ortuzainetako bat da Antonio Hoyos, eta enpresak emandako epeaz kexu da, «uzta berde dago, eta ezin dugu guztia batu oraindino». BYCAMeko makinak Hoyosen ortuaren atarian daude, metro gutxira, eta enpresak ingurua husteko epea luzatu badu ere, ortuzainak ez du uste denborarik izango dutenik den-dena jaso ahal izateko. «Makina martxan ipiniz gero, horren aurrean jarri eta nire gainetik igaro beharko du», dio; izan ere, Hoyosek ortuari ugari ditu landatuta: piperrak, tomateak, kalabazak, indabak... «Hori guztia kendu gura badidate, balio duen guztia ordaindu beharko lidakete», aldarrikatzen du; «indabak jasoz gero, urte osoan jateko izango nuke».

Hoyosek 40 urte daroatza ortu horretan. Inguru hori lantzen lehenengoetarikoa izan zela aitortzen du; hala ere, azkenengo urteetan jende gazte ugari egiteko horretan murgildu dela dio. Horren adibide ditugu Gorka eta Endika Principe anaiak. Bertoko auzokideak dira, eta orain dela bost urte okupatu zuten lur-zati bat euren ortua lantzeko. «Egunero joaten gara; hor batzen gara lagunok, eta ez daukagu-



200 lagun inguruk lantzen dituzte Iturribarriko ortuak.

nean ezer egiteko, bertan ematen ditugu orduak», azaltzen dute anaiak. Era berean, Iturribarri goraiatzen dute, «inguruan daukagun eremu berde bakarra da, auzoaren nortasuna».

Josu Cuestak ere hiru uda daroatza Iturribarriko ortuetan, «gizon batek lur-zatia utzi ostean». Atsekabez hartzen du inguruko urbanizazio-proiektua. Ortuak ibiltzeak asko eskaintzen diola azaltzen du, «antsietateari aurre egiten laguntzen dizu. Gauzak landatu eta uzta jaso artean, lan handia egin behar duzu, baina emaitza itzela da». Halaber, «benetako produktuen» balioaz konturatu dela dio. Hala ere, bazekitena heldu egin dela aitortzen du, «landa hauek ez dira gureak, eta ez dugu alokairurik ordaintzen. Noizbait utzi beharko genituela bagenekien, baina ez genuen espero horren arin izango zenik».

575 etxebizitza inguru

Udalak jakinarazi duenez, inguru horretan 352 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 147-273 inguru eraikiko dituzte, ezarritako eraikitze-tipologiaren arabera. Eraikinek lau solairuko altuera izango dute, eta eraikin arteko gutxienezko tartea 8 metrokoa izango da. Gehieneko eraikigarritasuna HAPOk ezarritakoa izango da: 37.597 metro koadro etxebizitza librerako, 14.732 metro koadro babes ofizialeko, eta 3.500 metro koadro ekipamendurako. Getxoko Udalak gogoratu duenez, Birpartzelazio Proiektuaren Berritutako Testua 2013ko azaroaren 19an onartu

Iritziak



GORKA PRINCIPE

Daukagun inguru berde bakarra kenduko digute, Hezetasuna auzoko nortasuna zapalduz».




JOSU CUESTA

Getxo balio handiko herria da, eta normala da etxebizitzak egin nahi izatea; halere, milaka hutsik daude».



ANTONIO HOYOS

Ez diot lur-zatiak eman behar dizkigutenik, ez direlako gureak, baina urte luzez horiek kontserbatu ditugu».



LEIRE AZKARGORTA

Udalak eta enpresa pribatuek berrero ere hormigoia ezarri nahi dute Getxoko birika honetan».

zen, eta 2014ko irailaren 11n horren formalizazioa onartu zuten. Birpartzelazio-prozesu horretan, Exekuzio Unitateak hartzen dituen babes ofizialeko etxebizitza guztiak hartu ditu Udalak, «horrela aurreikusten zen Etxebizitza Planean», zehaztu dute.

Hezetasunaren arnas gunea

Hezetasuna auzoko eta inguruko hainbat auzokide urbanizazio-proiektu horren kontra agertu dira. Gutxi gorabehera, gaur egun 200 lagun inguruk lantzen dituzte Iturribarriko ortuak; batzuk okupatutako lur-zatietan, eta beste batzuek, euren jabegoko sailetan. Izan ere, lursail horiek bertako jabeenak ziren aspaldi, baina horietako askok Getxoko Udalari saldu zizkieten euren lursailak, «eta Udalak horien zati handi bat BBK eta Viviendas de Vizcayari saldu zizkien», Jabi Peña Hezetasuna Auzoko Bizilagunen Taldeko kideak azaldu duenez. Ondoren, «horiek lurroriek higiezin agentziei saltzen hasi ziren, esaterako: Casa Barco eta Neiror Homes», gaineratu du.

Lehenengo fase honetan BYCAM enpresa ingurua urbanizatzen hasiko dela adierazi dute auzokideek: «lehenik eta behin, errepideak, espaloiak eta biribilguneak egingo dituzte». Peñaren ustetan, enpresa eraikitzaileak presaka dabil urbanizazioa burutzeko, «urtarrilera arte dute hori egiteko epea, orduan Udalak HAPO berria onartuz gero, enpresek Iturribarriko proiektu osoa birformulatu beharko luketelako».

15-16

abonuko

DENBORALDIA

Hastapeneko Abonua

Piano labelduna* abonua tematikoa

06

abendua 10-11

Judith Jauregui
pianoa
Erik Nielsen
zuzendariaW. A. Mozart, Concerto para piano y orquesta
en Do menor n.º 24
A. Bruckner, Sinfonía n.º 3 en Re menor

12

martxo 17-18
BaloizaVictor Ullate Ballet
Carmen Linares
flamenco-kantaria
David Porcelijn
zuzendariaEl Amor brujo
Musika:
M. de Falla, Luis Delgado
«In Slaughter Natives»
Koreografia:
Victor UllateBilbao Orkestra
Sinfonikoa

4

abonu mota

Abonu osoa (17 kontzertu)

Hastapeneko abonua (6 kontzertu)

Abonua nahierara (6 kontzertu)

Piano labelduna (4 kontzertu)

35€^{tik}
aurrera

Informa zaitez

abonados@bilbaorkestra.eus

www.bilbaorkestra.eus

Tel. 944 035 205

Sarrerak salmenta:
Venta de entradas:
www.kutxabank.esOrkestraren kulturaren
Cajeros multiservicioBilako Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTOBilbo eta Markotza Salia
Rueda de Cultura y Espectáculos

www.bilbaorkestra.eus

Egilea
Euskalduna Jauregia

01

urria 8-9
Hasierako kontzertuaJoaquín Achúcarro
pianoa
Erik Nielsen
zuzendariaI. Stravinsky, Scherzo fantastique
M. de Falla, Noches en los jardines de España
P. I. Tchaikovsky, Sinfonía n.º 5 en Mi menor

07

abendua 17-18
Gabonetako kontzertuaMiren Urbietta, soprano
Bilboko Koral Elkarte
[Julio Gergely, zuz.]
Bilboko Koral Elkarte
umeen abesbatza
[J.L. Ormazabal, zuz.]
Erik Nielsen, zuzendariaJ. C. Pérez
Deltzen dizut, Virgilio
[Erabaketa estreinaldia]
P. I. Tchaikovsky
Cascanueces, suite

13

Fundación
Jesus Serra
apirila 14-15Regina Chernichko
pianoa
Pablo González
zuzendariaJ. Sibelius, Finlandia
E. Grieg, Conc. para piano y arq. en La menor
C. Nielsen, Sinfonía n.º 4 "Inextinguible"

02

azaroa 5-6

Paul Huang
biolina
Carlos Miguel Prieto
zuzendariaA. Márquez, Danzón n.º 2
S. Barber, Concerto para violín y orquesta
S. Revueltas, La noche de los Mayas

08

urtarrila 21-22
BOSbaroqueGiuliano Carmignola
biolina eta zuzendariaA. Vivaldi
Sinf. n.º 1 en Do Mayor
Concierto "Per la solennità di San Lorenzo"
Concierto "Il grosso mugil"
Le Quattro Stagioni

14

apirila 28-29

Johannes Moser
biolontzela
Erik Nielsen
zuzendariaF. Guide del Real
Fragmentos del Salirón (BOS-FBNA serie)
F.J. Haydn
Sinfonía n.º 104 "Londres"
A. Dvorak
Concierto para violoncello y orquesta

03

azaroa 12-13

Asiatic Research Institute-arekin lankidetzatza

Shubhendra Rao
sitarra
Jordi Bernàcer
zuzendariaR. Shankar
Concierto n.º 1 para sitar y orquesta
M. Mussorgsky / M. Ravel
Cuadros de una exposición

09

otsaila 4-5
Inauteriko kontzertuaLeticia Moreno
biolina
Eduardo Portal
zuzendariaJ. Strauss, Die Fledermaus, obertura
C. Saint-Saëns, Introducción y rondé caprichoso
para violín y orquesta
F. Von Suppé, Poeta y aldeano, Obertura
A. Dvorak, Obertura Carnaval
M. Ravel, Tzigane para violín y orquesta
R. Strauss, Rosenkavalier, suite

15

maiatza 5-6

Xavier de Maistre
arpa
Arturo Tamayo
zuzendariaM. Ravel, Le Tombeau de Couperin
A. Ginastera, Concerto para arpa
G. Mahler, Sinfonía n.º 10, Adagio

04

azaroa 19-20
Jazz Gaia

365 JAZZ Bilboarekin lankidetzatza

China Moses
abeslaria
Erik Nielsen
zuzendariaJazz Gaia
BOS & China Moses

10

otsaila 11-12

Giancarlo Guerrero
zuzendariaG. Mahler
Sinfonía n.º 6 "Trágica"

16

maiatza 12-13

Marta Zabaleta
pianoa
Yaron Traub
zuzendariaS. Rachmaninoff, Concerto para piano
y orquesta n.º 2
D. Shostakovich, Sinfonía n.º 10

05

abendua 3-4

Evelyn Glennie
perkusioa
Marcus Bosch
zuzendariaS. Barber, Adagio para cuerdas
J. Macmillan, Veni, Veni, Emmanuel
A. Dvorak, Sinfonía n.º 6 en Re mayor

11

otsaila 18-19

Miguel Iruarte
pianoa
Nabil Shehata
zuzendariaA. Illarramendi, Zarzuela, Obertura [Estreinaldia]
I. Stravinsky, Capriccio para Piano y orquesta
W. A. Mozart, Rondó en La Mayor para Piano
F. Schubert, Sinfonía n.º 4 en Do menor "Trágica"

17

maiatza 26-27
Amaierako kontzertuaTanja Ariane Baumgartner
mezzosoprano
Erik Nielsen
zuzendariaC. M. Von Weber / H. Berlioz
Invitación a la Danza
Igor Stravinsky
Le faune et la bergère
H. Berlioz
La muerte de Cleopatra
I. Stravinsky
La consagración de la Primavera

Guneak	Abonua			Sarrerak				Gazteak abonua (26 urterarte)				Gazteentzako abonua (18x26 / 26x26plus)		
	Abonu Osoa	Hastapeneko abonua	Abonua nahierara	Piano labelduna	Normala	Azken ordua*	CrediBOS** (6 sarrerak)	Abonu Osoa	Hastapeneko abonua	Abonua nahierara	Piano labelduna	Sarrerak	Abonua	Sarrerak
A+	349.00				30.80	15.40		119.00				9.10	56.00	3.70
A	320.50	126.00	130.00	95.50	27.70	13.85	133.00	119.00	44.50	47.00	31.50	9.10	56.00	3.70
B	252.00	94.50	97.50	66.00	19.30	9.65	92.50	83.50	32.50	33.50	23.00	6.70	35.00	2.50
C	178.50	71.00	73.00	50.00	14.60	7.30	70.00	72.50	23.00	24.50	17.00	4.90	35.00	2.50

Oharriak: Sarrerak prezioak egitarau guzientzako dira baliagarriak, 12 urteko (baliak) izen eskiz. Abonu egitarauaren prezioak gure baliagarri kontzertuak direla-eta.
Gazteentzako prezioak: 18 urteko (baliak) izen eskiz. Abonu egitarauaren prezioak gure baliagarri kontzertuak direla-eta.


* Sarrera-kopuru mugatuta

** 18 urteko (baliak) 12 egitarauaren

6€2 burren.
Prezio berrak baliagarriak dira, berriztatze-erabakia erabakigarria den bitartean.

Getxo

Laguntzak, kultur elkarteentzat



Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu du Begoñako galerietan egindako esku-hartzea.

Udalak ia 95.000 euro banatuko ditu Getxoko 19 kultur talderen artean, euren ohiko jarduerak aurrera eroan ahal izateko.

Udalak 94.941 euro banatuko ditu aurten udalerriko 19 kultur talderen artean, euren ohiko jarduerak aurrera eraman ahal izateko. Laguntza jaso duten elkarteak hurrengoak dira: Abian Kultur Elkartea, Agurra Dantza Taldea, Antzezaleak, Eskuz-Esku, Anahata, Aretxondo kultur elkartea, Berantzagi, Biotz Alai abesbatza, Irutasun abesbatza, Ondarreta abesbatza, Itxas Egurra Haizean, Itxartu Taldea, Itxas-Argia Dantza taldea, Getxoko Elkarte Filatelikoa, Basozaleak, Tangorako Soinutarrak, Zozoak Abeslari Lagunak abesbatza, Las Mer-

cedes eta Kaos Gunea. Azaldu dutenez, elkarte horiek egiten duten lana «funtsezkoa» da Getxoko eskaintza kulturala indartzeko. Hala, 2013-2016 Kultura Planean murgilduta, kultur eragileekiko elkarlana ezinbestekotzat jotzen du Udalak.

Begoñako galerietarako laguntza

Eusko Jaurlaritzak 2.400.000 euro bideratuko ditu 2015-2017 aldian euskal kultur ondarea zaindu, aberastu, babestu eta sustatzeko jardueretara, Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak diru-laguntzok arautzen dituen agindua onartu ondoren. Hala, aurreko deialdiaren bidez, agindu horrek euskal kultur ondarea bultzatu eta sustatzeko 32 proiektu lagundu zituen diruz; tartean, Begoñako galerietan egindako esku-hartzea. ◀

Arrapala mekanikoak nahi ditu PPK Aiboan

Aiboako metro-geltokitik Udalaren Zaharren Egoitzaraino bitarteko mekanikoak ezartzea proposatu du Getxoko PPK; «bertan dagoen aldapa gainditzeko», azaldu dutenez. «Auzokideek eta metroko erabiltzaileek urteak daramatzate hobekuntza hori eskatzen», popularren arabera. Raquel Gonzalez zinegotziak esan duenez, Salsidukoen antzeko arrapala mekanikoak jartzea litzateke egokiena Zaharren Egoitza eta metro-geltokia lotzeko.

Hala ere, popularrek ez dute baztertzen Ereagakoaren antzeko igogailu bat ere jartzeko aukera, «udal teknikarien ikerketak halakoa proposa dezakete», azaldu dutenez. ◀

Zinema indigena, Algortan eta Leioan

Venezuelako Bilboko Kotsulatuak, EHUK eta Gizarte Ikerketarako Talde Eragileak (GITE-IPES) «Zinema indigena, erraietatik so» izeneko Zine Forum antolatuko dute urriaren 5ean, 6an eta 7an. Leioako EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako fakultateko Auditorioan izango dira emanaldiak. Ostera, hilaren 7an (19:00), Algortako Villamonteko kultur etxera ere ekarriko dute zikloa. Bertan izango da Yanilu Ojeda zinema-zuzendaria, giza komunitateen errealitatea ulertu ahal izateko. Iniziatiba hori Venezuelako Erresistentzia Indigenaren Egunaren barruan dago, eta WAYAAKUA fundazioaren eta Getxoko Giltza elkartearen laguntzagaz garatuko da. ◀

Espainia, «auzitara»

Urriaren 19an hasiko da Askapena, Herriak libre eta Askapeña erakundearen eta 5 euskal herritarren kontrako epaiketa; tartean dago Gabi Basañez getxoztarra. Basañezi eta beste lau laguni, 6 urteko espetxe-zigorra eskatzen diete, «internazionalismoaren eta herrien arteko elkartasunaren alde lan egiteagatik», Askapenak adierazi duenez. Horren aurrean, ostera, Espainiar estatua «errudunen eserlekuan» jarriko dute hilaren 3an. «Euskal herritarrok hamarnaka arrazoi ditugu Espainia zigortzeko, eta nazkatuta gaude euren sasi-justizia inperialistarekin», azaldu dute. NATOn parte hartzea, Hego Amerikan egindako konkistak, eta euskaldunon



Zapatuan egingo dute «herri-epaiketa».

kontra hartutako neurriak jarri dituzte horren adibide; hala, zapatuan, goizeko 12:00etan, kalejira abiatuko dute Telletxe plazatik. Jarraian, herri-epaiketa egingo dute Txiki-Otaegi plazan, eta amaitzeko, bazkaria egingo dute, Abian herriko tabernan. ◀

30 urtean, 50.000 lagunek ikasi dute euskara gure 100 euskaltegietan

eman izena euskaltegian

URIBE KOSTAKO AEK
ZATOZ GUREKIN!

Leioa: 944 646 063 lamia@aekeus
Getxo: 944 304 734 lauxeta@aekeus
Plentzia: 946 773 607 jentibaso@aekeus
Gorliz: 946 773 646 jentibaso@aekeus

www.aek.eus/blogak/unibekosta
www.facebook.com/unibekostako.aek

Eman izena

673 200 100 - 946 464 000
www.aek.eus

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gubxi denik ez prentsa”
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Libxerariak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

PINTXOAK

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

Erandio

Mende erdiari, azkena emanez

Goi-Alde dantza-taldeak

agur esango die 50. urtemugako ekitaldiei, festaz, datozen egunotan.

Barikutik domekara, Erandio-goikoko Goi-Alde dantza-taldeak jira eta bira egin dituen 50 urte luzeak ospatuko ditu, auzoan, 160 laguneko familia-giro alaian. Ekitaldi denak irekiak dira, eta, elkartearen partaideez gainera, edozein auzotar zein bisitari ondo etorria izango da. Gainera, jatekoak direnak izan ezik, jarduera guztiak doakoak izango dira.

Ezinbestean, dantza izango da ardatza ekimen gehienetan, 1965eko abuztuaren 15etik aurrera Goi-Alderaren arima izan dena. Data hartan kalera-tu zen lehenengo aldiz taldea, Andra Mari egunean, auzoko jaietan erakus-



Euskal Herri osoko dantzak erakutsi ditzake Goi-Aldek emankizunetan. © GOI-ALDE DANTZA-TALDEA

taldia egiteko. Espiritu horregaz batu ziren, pasa den abuztuan ere, taldetik pasatutako ehunka lagun. Eskarmen-tu gehien zutenek hasierako garaiak eta pertsonak ezagutu zituzten: On Mariano abadea, taldea sortzea eskatu zuena; Jose Luis Intxaurbe *Kotxelu*,

agindutakoa gogoz bete zuena; Itziar Aresti, neskak ere dantzan ipini zituen, eta Javi Intxaurbe, dantza-maisua. Haiek ereindako kultura- eta folkloregina sasoian dagoela erakutsiko dute berriro ere aste-akabuan. ◀

info +: facebook.com/goialde.dantzataldea

Egitaraua

Urriak 2, barikua

20:00 Goi-Alderaren 50. urteurreneko erakustaldia, Erandioko Udal Musika Bandagaz batera.

22:00 Ogitarteko-afaria. Txartelak 2 euroan. **Ostean** DJ-a.

Urriak 3, zapatua

12:30 Dantza-taldeen erakustaldia: Goizaldi (Donostia), Gaztedi (Santutxu) eta Baztango Mutil Dantzari Taldeagaz (Arizkun).

15:00 Herri-bazkaria. Txartelak, salgai: 20 euro (umeentzat, 10 euro).

18:00 Taberna ibiltaria.

Ostean DJ-a.

Urriak 4, domeka

Egun osoan Puzgarriak.

13:00 Pintxo-poteoa. Edari bakoitzagaz, pintxoak doan.

17:00 «Arrantzara dantzan!» umeentzako ekitaldia, Irrien Lagunak taldeak antolatuta.

19:00 Korrontzi taldearen emanaldia.

Sexu-aholkularitzako zerbitzua, martxan

Erandioko Udal Gazteria Sailak eta Txorierriko Mankomunitateak hainbat ikastaro antolatu dute datozen hilabeteetarako. Daborduko, izena eman daiteke denetan. Euskarazko ohiko jardueri sexu-aholkularitza gehitu diete erakundeek; zerbitzuak pasa den irailaren 11n abiatu zuen ikasturtea. Hamabostero, barikuetan argituko dizkiete sexuaren inguruko zalantzak gazte, heldu eta irakaskuntza- zein osasun-profesionaleri. Ordutegia 18:00etatik 20:00etara izango da, udaletxearen atzealdean, Altzagako Santi Brouard plazan. Zer-

bitzuak beste helburu batzuk ere badauzka, barbarako: zailtasunak gaintzen lagundu, baliabideak ezagutarazi, informazioa eta prestakuntza eman, eta sexualitatearen gaineko tailerrak antolatzea. Zerbitzua doakoa da, ahotsa lantzeko eta autodefentsa feminista tailerrak legez. Biak ala biak dira hamar ordukoak eta gaztelaniaz.

Bestelako ikastaro denetan, interesa dutenek ordaindu egin beharko dute. Ingeles ikastaroa kenduta, denak gaztelaniaz egingo dituzte. ◀

izen-ematea: infoerandio@gmail.com
info+: tiki.com/341696

‘Herriko tabernak’ babestu ditu Udalak

Erandioko Udalak elkartasuna adierazi die Egoki eta Hegoalde herriko tabernen elkarte, langile eta bazkideei, eta HBren eta herriko tabernen aurkako auzian zigortutako eta kaltetutako denei. Horrela onartu zuen Udalbatzak pasa den egunean, EH Bilduk aurkeztu zuen mozioari oniritzia ematean. Testuak EAJren eta Ganemos Erandioren babesa ere lortu zuenez, erraz gaintu zuen PSE-EEK eta PPK emandako ezetza.

Mozioak salatu ditu 35/02 auziaren epaia eta sententzia horrek «eskubide zibil eta politikoen defentsan» da-

kartzan «atzerapauso nabarmenak», tartean aipatutako lokalen eta beste 105en konfiskazioa. Herriko ordezkarien iritziz, «egun bizi dugun egoera politiko berrian, horrelako gertaerek ez dute lekurik». Horregatik, Udalak «salaketa irmoa» agertu, eta iragarri du «bake iraunkor eta justu bat erakitzeke uneotan, horrelako egoerak eman ez daitezen lan egingo» duela.

EH Bilduk aurkeztutako mozioari testu alternatibo batez erantzun zion PSE-EEK, botere judizialari eta boteren banaketari errespetua eskatzeko. Bigarren agiri hori ere onartu zen. ◀

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

txakoli mota ganeTx.
txakolina

leioa Urbe errepidea 34 (Alaiakoa Parke) Gorkeri Erandio
Tf. 94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

LUBERRI Basolanak S.L.
LOREZAINITZA

- **Soropila Ezartzea**
Iuzkora prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, lumbadiko-organitze lanak eta beste lanak.
- **Soropila zaintzea eta mantentzea**
Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta destinkatzea, berrikatzea, soropila goiztiak eta belar goiztiak tratatzea.
- **Inausketak**
Hazteko, mantentzeko, beritzeko, zuhaioa apaingarriak inauszea, esabatsko inausketak.
- **Barrukaldeak lorategi bihurtzea**

Arpe ibaiertza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) Meg. 629 41 18 38 - Tf. 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberril@euskalnet.net - www.luberril.biz



Begin nago begire

**JOSU
ESNAOLA ARANGUREN**
Helduen euskalduntzean
irakasle

Now's the time.
Bada garaia
noizbait dezagun...

Asteburuan Jean-Michel Basquiat artista estatu-batuarraren erakusketan izan naiz Bilboko Guggenheim museoan. Eta aipamen edo erreferentzia batzuk oso ondo ulertu ez baditut ere, bere artearen gordinak harrapatu egin nau, 80ko hamarkadako New York beltzera murgildu nau. Entzun dut Charlie Parker saxofoi jole beltzaren kanta, eta entzun ditut Martin Luther King beltzen eskubide zibilen aldeko ekintzaile beltzaren hitzak, eta usaindu dut arrazakeria eta bazterkeria, beldurra eta itxaropena. Now's the time

Gurera ekarrita: Bada garaia. Horrela eman dute euskaraz. Eta niri Amurizaren hitzak etorri zaizkit akordura, Oskorriren ahotsen ezagutu genituenak. Eta pentsatu dut ezin garaela noizbait horri begira egon, gaur eta orain, unean-unean, irabazten edo galtzen dugula guda hori. Mingaina dantzatzen dugun bakoitzean, lagunari mezua bidaltzeko teklatura astintzen dugunean, auzoko dendan ogia erosten dugun bakoitzean, telebista edo irratia pizten dugunean, alboko tabernan kafea hartzen dugunean, liburu bat hartzen dugun bakoitzean; beltzen mundua ala zurien mundua ari gara elikatzen, beltzen iruditeria ala zuriena eraikitzen.

Sarrionaindiak esana zigun euskalduna izatea beltza izatea bezalakoa dela. Baina gurean, batzuen ustez, aspaldi joan zitzaigun garaia, eta besteen ustez oraindik ez da iritsi. Eta eztabaida horretan korapilaturik ez gara konturatzen oraintxe dela garaia, unean-unean. Oraintxe, euskara ala erdara indarberritzeko. Oraintxe, izan nahi dugun ala ez erabakitzeke. Axularrek gaztigatu zigun zer zekarren lanak geroko uzteak. Oraintxe da garaia eta norberaren esku dago. Oraintxe da izan nahi dugun hori izateko garaia. ◀

Leioa

Pinosolo, artxibatuta

Auziaren ikerketa artxibatzea erabaki du Fiskaltzak, zortzi hilabetez ikertzen jardun ostean.

Pinosolo auziaren inguruko diligentziak artxibatzea erabaki du Bizkaiko Lurralde Auzitegiko fiskalak. Deliturik egon zenik adierazteko «frogarik ez» dagoe la ei dio fiskalaren txostenak.

EAJren Bizkaiko Buru Batzarrak (BBB) pozik hartu du erabakia. Euren arabera, dekretu horrek «Eneko Arruebarrena (Leioako alkate ohia) eta Jon Loizagaren (zinegotzi ohia) ohorearen inguruan egon litezkeen zalantza guztiak argitzen ditu». Ostera, Leioako EH Bilduk kasua artxibatzeke arrazoia «delituen preskripzioan» oinarritzen dela uste du, «eta ez irregularitasunak eman ez direla egiaztatu delako».



Bizkaiko PPK 2014an aurkeztu zuen Arruebarrena eta Loizagaren kontrako salaketa.

«Erretentzio ilegala» ikertzen

Pinosolo auzi horren baitan, erantzukizun penalak ikertzeko hasierako diligentzietan lekuko lege deklaratu zuen pertsona baten salaketa ikertuko du fiskalak, «legez kontra erretentitu» zutelakoan. Artxibatutako PPre salaketa

ketatik kanpo egongo litzateke ikerketa hori. Ustez, lekukoak berak emandako audio-grabazio bat ere badago; horren arabera froga liteke Leioako Udalak egiten zituen obren esleipenak «kidetasun politikoa» kontuan hartuta egin zirela. ◀

Guraso zein nagusientzako ikastaroak, urritik aurrera

Positiboan hezten izeneko tailerrak martxan ipini ostean, 3-11 eta 12-18 adin tartetako seme-alabak dituzten gurasoentzako tailerrak antolatu ditu Udalak. Horien helburua bizikidetzaren familiatik eraikitzea da. Programa, hamabi orduko tailer bik osatzen dute, sei saiotan banatuta, astean behin; euskaraz (urtarrilean eta otsailean) eta gaztelaniaz (urrian eta azaroan) eskainiko dira. Aldez aurretik izena eman beharra dago parte hartzeko.

Halaber, adimen emozionala hobetzeko hiru tailer eskainiko dizkie Udalak adinekoei. Errekalde Nagusien Etxeko erabilera anitzeko



LEIOAKO UDALA

gelan egingo dira. Tailer bakoitza egun bitan emango dute, martitzen eta eguenetan, 11:30etik 13:00etara. Ikastarook doan dira. ◀

info+: www.leioa.net / 675 715 661
harremanetarako: info@geuz.es

Izena eman daiteke Nekazaritza eta Abeltzaintza azokan

Bi hilabete eta erdi gelditzen dira Boraindino Leioako XXVIII. Nekazaritza eta Abeltzaintza azokarako. Hala ere, bertan parte hartu ahal izateko, izena emateko epea daborduko zabalik dago. Horrenbestez, bertan parte hartu gura dutenek eskabide-orria bete eta eskatzen den dokumentazio guztia atxiki behar izango dute, postaz, faxez edo helbide elektronikoaren bitartez helarazteko. Interesa dutenek azaroaren 13ra arte izango dute hori dena egiteko aukera, 14:00ak arte. Behin aurkeztutakoaren artean aukeraketa eginda, azaroaren 27an jakinaraziko diete erabakia eskatzaile guztiei. ◀

info+: 946 072 578 / kultur@leioa.net

**GURE
ETXEA**
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Amiluze z.g. • T.Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)

info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Sopela

Inkestas Rock Festival, aste-akabu honetan!

Rock jaialdi honetan, 17 musika talderen zuzeneko emanaldiakaz gozatu ahalko da udaletxe aurreko plazan, barikuan eta zapatuan, Barraks Promotioek antolatuta.



Kontzertuak 17:00etatik aurrera izango dira. Argazkian, Dingos & Flamingos.

Sopelan, jaiak ez du etenik. Sopela Kosta Fest oraindino buruan daukagun honetan, beste jaialdi bat ospatuko da Sopelan, aste-akabuan: Inkestas Rock festibala. Urtero legez, Barraks Promotioek antolatu ditu kontzertuak, Sopelako Udalaren laguntzagaz, «euretariko baten omenez». Barikuan eta zapatuan izango dira zuzenekoak, udaletxe aurreko plazan. Barikuan, zortzi talderen emanaldiak ikus ahalko dira; zapatuan, bederatzi talde igoko dira taulara.

Inkestas Rock jaialdia, Sopelako eta Uribe Kostako gazteei eskaintza rockeroa egiteko asmoz sortu zuten, antolatzaileek diotenez. Gainera, inguruko musika-taldeei aukera eman gura diete euren musika ezagutzera emateko. Azaldu dutenez, hasieran, lagunarteko kontzertu txikia zen Inkestas Rock, baina jaialdia indartuz eta finkatuz joan da apurka-apurka. Diotenez, «jende askoren laguntzagaz, Inkestas Rock jaialdia ezagun egingen ari da». Horrenbestez, kale egiteko aitzakiarik ez daukazu, zatoz! ◀

info +: www.inkestasrockfestival.com



Egitaraia

Urriak 2, barikua

18:05 Ilbet
18:50 Free the Whell
19:45 Ian Mason
20:40 Bragasonics
21:35 Jaundone
22:30 Despeñaperros
23:25 Dingos & Flamingos
00:20 Cactus

Urriak 3, zapatua

17:10 Karla Imbert
18:05 Malamuerte
18:50 Deceiver
19:45 Late to Scream
20:40 Molikote
21:35 Space Octopus
22:30 Knives
23:25 The Flying Scarecrow
00:20 Kartzarot
01:30 Kaos Sessions by La Hora del Kaos (Laiak tabernan)

Natura eta surfaren gaineko film laburrak, Kurtzion

Ospatu berri den Sopela Kosta Fest jaialdian, surfaren eta naturaren gaineko film laburren lehiaketa egin da. Film irabazleak jaialdiaren barruan proiektatu bazituzten ere, bari-ku honetan, urriaren 2an, lehiaketara aurkeztutako film denak ikusi ahalko dira, Kurtzio kultur etxean, 19:00etan eta doan (gonbidapena kultur etxean jaso beharra dago). Gainera, Txus Delgado zinemagile sopeloztarraren *Big Wave in the Basque Country* dokumentala ere emango dute: Euskal Herriko olatu erraldoiak erakusten ditu, eta horiek surfeatzen dituzten euskal surflari-rik onenak ere (ikus. 15. orria). Lehiaketara itzuliz, lehenengo edizio honetan,

12 film labur aurkeztu zituzten, «denak kalitate handikoak, eta gehienak, dokumentalak». Sopela, Euskal Herri eta Argentinatik heldu ziren.

Hiru sari eman zituzten. Lehenengo, *Film laburrik onena Sopela Kosta Fest* saria, *Solsticio/Invierno* (Beto Oviedo, Argentina) lanari eman zioten, eta 500 euro irabazi zituen. *Gure funtsa* filmak (Zazpi7.1ez, Sopela) lortu zuen, berriz, bigarren saria, *Berton Sopelako zinemagilerik onenari*; 250 eurokoa. Eta *Las chicas de las olas* filmari (Kantauriko Olatua. Paula Odriozola, Sopela) eman zioten, hirugarren saria, *Genero ikuspegitik film laburrik onenari*; 250 eurokoa. ◀

Euskaraz Olgetan programa, domekaro, Urgitxieta plazan

Euskaraz Olgetan programa lotu ebarik doa aurrera. Uribe Kostako Mankomunitateko herri guztietan egingen da, familiartean euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Hil honetan ere, hainbat jarduera egingo dira Larrabasterrako Urgitxieta plazan, domeketan, 12:00etatik 14:00etara. Hurrengo hitzorduak: urriaren 4an, mural tailerra; hilaren 11n, plastilina tailerra; urriaren 18an, ipuin-kontaketa, eta 25ean, familien arteko jolasak. Parte hartu gura baduzu, Larrabasterrara joan besterik ez daukazu, aipatutako egunetan eta orduetan. Erdu euskarara! ◀

info +: www.uribekosta.eu

Euskal dantzen ikastaroaren izen-ematea, zabalik

Kurtzio Kultur Etxeak askotariko ikastaroak antolatu ditu hasi berri den ikasturterako; horien artean, euskal dantzena. Ikastaroa, urriaren 14an hasiko dute; ekainera arte iraungo du. Eskolak eguaztenero izango dira, mailaren arabera: oinarritzko mailarena, 18:00etatik 19:30era, eta aurreratua, 19:30etik 21:00etara. Saioak, Iberre institutuko gimnasioan egingo dituzte, eta ikastaroaren prezioa 110 eurokoa da. Izena emateko epea zabalik dago, urriaren 4ra arte. Gainera, antolatzaileen esanetan, «lehen eskolara joan zaitezke, eta probatu; gustura bazaude, izena eman». ◀

info +: www.sopela.eus

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentabxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

LURREN

GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRIA
 SOPELA, Tipu kalea 1 (Udaletxe atzetan)

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
 ABIERTO PERIODO DE INSCRIPCIÓN

SOPELA

IZENA EMATEKO EPEA /
 Período de inscripción: Urriaren 1etik 9ra
 Del 1 al 9 de Octubre

Urriaren 9an ATE-IREKIAK - 18:30etan
 9 de Octubre JORNADA de PUERTAS ABIERTAS - 18:30h.

Tel.: 94.676.25.59

Hartzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
 Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
 info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
 i k a s t o l a

Berango

Emanaldi ugari hartuko ditu urrian Berango Antzokiak

Udako geldialdiaren ostean, indartsu eta ekitaldiz beteta hasiko du ikasturte berria Berango Antzokiak. Hala, urrian adin guztientzako zazpi ikus-entzunezkoren emanaldiak eskainiko dituzte bertan. Urriaren 4an, *Aviones 2. Equipo de rescate* animazio-filma proiektatuko dute. Urriaren 10ean, berriz, 16 urtetik gorakoei zuzendutako *La isla minima* pelikula eskainiko dute, 19:00etan; polizia-film horrek 10 sari irabazi ditu Goya sarie-tan. Hurrengo egunean, urriaren 11n, adin guztientzako *Chef* filma eman-go dute, 18:00etan. Urriaren 17an, os-tera, ACADAE taldeak Simon Otxan-dategiren inguruan berba egingo du, 19:00etan, Ondarearen Europako Jar-dunaldien barruan. Urriaren 24an mu-sikak hartuko du antzokia, Trio Vera-cruz taldeagaz. Emanaldia 19:00etan hasiko da, eta horiekaz gozatu ahal izango da 3 euroren truke. Hurrengo egunean, hilak 25, umeentzako euska-



Zazpi jardueretatik bi izango dira euskaraz.

razko txotxongilo-emanaldia egongo da, *Ipuin magikoak* izenekoa. Sarrera euro baten truke eskuratu ahal izango da. Azkenik, urriaren 31n, 7 urtetik go-rakoentzat Halloween zinema ekarri-ko dute, *Monster House* filmagaz. Etxe sorgindu baten gaineko komedia hori euskaraz eskainiko dute, eta sarrera doakoa izango da.

Azkenengo emanaldi horiek biak kenduta, gaztelaniaz izango dira gai-nontzeko jarduerak. ◀

Abby umea gogoan izaten jarraitu gura du Otxandategi taldeak

Berangoko Otxandategi Abestaldeak *Abby Potxola* izeneko diskoa kaleratu zuen, joan den urtean. Horregaz batera, diskoaren izen bereko abestia bideo-klip batez lagunduta aurkeztu zuten Youtuben; «youtube abby potxola» klabeagaz aurki daiteke. Ia urtebete igaro da talde berangoztarrak 2013an zendutako Abby ume senegaldarraren historia ezagutzera eman zuenetik. Horretarako, Youtubeko bideoa 10.000 bisitetara heltzea gura dute, lan hori lehenengo postuan agertzen dela bermatzeko, eta, horrela, umearen historia ezagutarazteko. Abbyk giltzurrunetako gaitza zuen, eta Otxandategi taldeko arduradun batek gurera ekartzeko ahalegina egin zuen, baina neskatoa zendu egin zen, bidaiari ekin baino aste bi lehenago. Diskoa Algortako Elkar dendan eros daiteke, eta lortutako diruaren zenbateko bat Senegalgo Jammu taldeko ki-deei bideratuko diete. ◀

Oraindino ere eman daiteke izena Udal Dantza Eskolan



Aukera badago oraindino Berango-ko Udal Dantza Eskolan 2015-2016 ikasturterako izena emateko. Dantza-eskolak hainbat ikastaro eskainiko ditu, ume, gazte eta helduei begira-koak. Dantza klasikoa 4 urtetik gorako zaleei zuzenduta egongo da; hala ere, dantza garaikidea ere erakutsiko dute eskola horretan. Berango Merana ikastetxe publikoko gimnasioan egingo dituzte eskolak, eta Ana Rosa Ter-cero CDART eskolako irakaslea izango dute gidari. ◀

Barrika

Adin guztientzako ekimenak hartuko ditu Barrikak, urrian

Udagoienean murgilduta gaudela, Barrikako agenda kulturala gainezka dator urrirako. Barikuro, 3 eta 12 urte arteko neska-mutilek Ludoteka-gaz gozatu ahal izango dute, 17:30etik 19:00etara. Urriaren 4an, domekan, berriz, adin guztietarako literatu-ra-tailerra egingo dute Liburutegian, 17:30etik 19:00etara. Hilaren 22an, eguaztenagaz, magiari egingo diote lekua, 3 eta 12 urte arteko umeek joko magikoakaz gozatzeko. Magia-tailerra Liburutegian egingo dute, 17:30etik 19:00etara. Azkenik, urriaren 30ean, barikuan, familia-zinema egingo dute

Ander Deuna kultur aretoan, 17:30ean. Oraindino ez dute zehaztu zein peliku-la proiektatuko duten. ◀

Urriak 2, 9, 16, 23 eta 30

17:30-19:00 Ludoteka.

Urriak 7, eguaztena

17:30-19:00 Literatura-tailerra.

Urriak 22, eguena

17:30-19:00 Magia-tailerra.

Urriak 30, barikua

17:30-19:00 Familia-zinema.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko gutuna

Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutuna sinatu du Udalak; Europako tokian tokiko eta eskualdeko 1.450 agintarik baino gehiagok egin dute horren alde. Hala, proiektu pilotua ipini dute martxan, sinatzaileek berdintasunerako politikak abian jartzeko edo hobetzeko helburuagaz. Proiektu horregaz, sinatutako gutunak esaten duen guztia ezartzen laguntzeko eta neurtzeko adierazleak garatu ahal izango dira. Iniziatiba hori Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluaren Justiziako Zuzendaritza



Proiektua urriaren 13 eta 14an aurkeztuko dute.

Orokorrak abiatu du, ICF International eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzagaz. ◀



Ttipi-ttapa

IRATXE MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Eta zer...?

Zelan uda? Nik neuk gizartea bitan banatuko nuke: urteka eta ikasturteka funtzionatzen dugunok. Uda amaitutakoan, asmo berrien garaia hasten da bizimodua «ikasturte naturaletan» oinarritzen dugunontzat. Iraila ikasturte berrirako trantsizio hil bihurtzen dugu, zer egin, nora jo... Datozen hilabeteak zerekin beteko ditugun erabakitze prozesuan sartzen gara. Orduan, kirola, eskulanak, EUSKARA... protagonista izaten dira gure pentsamenduetan. Euskara aukera bat da, baina askoren kasuan ez da lehena izaten. Ba, mesede bat eskatu behar dizuet, jar iezaiozue euskarari asmo berrien urrezko domina eta ETORRI EUSKALTEGIRA!!! ◀

TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15


Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

Plentzia

Hiribilduaren sorrera oroitzeko urteurrena egingo dute lehenengoz



Diego Lopez de Harok 1299an eraiki zuen «Placencia». PLENTZIAKO UDALA

Plentziak 716 urte beteko ditu urriaren 5ean. Data hori gogoratzeko asmoz, bertoko Udalak egun biko egitaraua prestatu du, urriaren 4rako eta 5erako. Horretarako, udalerriko elkarteak laguntza izan du.

Plentzia hiribilduak 716 urte beteko ditu aurren: urriaren 5ean, hain zuzen ere. Urteurren hori ospatzeko asmoz, bertoko Udalak egun biko egitaraua osatu du urriaren 4rako eta 5erako. Horretarako, egitaraua prestatzeko, «herriko kultur elkarte guztien laguntza» izan dute, Keltse Macias Kultura, Ekitaldiak eta Hezkuntza zinegotziak jakinarazi duenez.

Udalak akordura ekarri duenez, Diego Lopez de Harok 1299an sortu zuen Plentzia hiribildua, «Placencia» izenagaz, eta izen horregaz ezaguna izan zen XVI. mendera arte. Erdi Aroan sortutako Bizkaiko hiribilduen artean, Plentziak hainbat berezitasun aipagarri dituela jakinarazi dute udal arduradunek. Hasteko, «1236. urtea baino lehen sortu zen; beraz, Bizkaiko hiribildu zaharrenetako bat da», diote; horrez gainera, sortu eta handik 60 urtera, berriro birfundatu zen, «nahiz eta ez dakigun ondo zergatik». Bigarrenik, Bizkaiko 21 hiribilduen artean, Plentzia bere kale eta kantoiei garrantzi bera ematen dien herri bakarra dela azaltzen dute, «batzuek zein besteek antzeko garrantzia zutelako hiriko bizitzan». Azkenik, mendeak igaro eta aldaketa sakonak jazo arren, Plentziak oraindino bizirik mantentzen du Erdi Aroko hiri-egitura, «elementu histo-

rikoz eta ondarez hain aberatsa». Horregatik denagatik, lehenengo aldiz, Plentziako Udalak hiribilduaren sorrera gogoratzeko Eguna antolatuko du urriaren 4an eta 5ean, «oso garrantzitsua delako herriarentzat», goraipatu du Keltse Maciasek. ◀

info+: www.plentzia.eu

Urriak 4, domeka

Egun osoan Pintxo eta Erakusleio lehiaketak.

10:00 Dultzaineroen kalejira.

10:00etatik aurrera «Zer da Plentzia zuretzat?» umeentzako marrazki-lehiaketaren erakusketa. Adinaren arabera ipiniko dira Astillero Plazan.

11:00 «Geltokia eta Portua, burdinaren eskutik lotuta» bisita gidatua (euskaraz).

11:30 Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldeagaz, Elizako plazan.

12:30 Antzinako jantzien desfilea, 1299an erabiltzen ziren jantziak (baserritarak, ofizioak, nobleak...), Elizako plazatik Astillero plazara.

13:00 Plentzia Kantagune elkarteak Plentzia zaharrek hainbat lekutan ibiliko da.

13:30 Marrazki, Pintxo eta Erakusleio lehiaketetako sari-banaketak.

19:00 Plentziako Iraunkor abesbatzaren emanaldia, Plentziako Elizan.

Urriak 5, astelehena

19:30 Iris Azquineren txelo-jolearen eta musikagilearen kontzertua, Maria Magdalena elizan. Hiriburuaren antzinako bideoen proiektioak lagunduta egongo da emanaldia. .

Hainbat hobekuntza dakartza Plentzia Telebistak uda ostean

Plentzia Telebistak (PTB) hobekuntza tekniko batzuk egin ditu azkenaldian, bere emisioaren seinalea hobetzeko asmoz. Hori horrela, PTB kalitate handiagoagaz ikusteko aukera dute euren etxebizitzetan Plentziako ikusleek joan den irailaren 23az geroztik. Era berean, kateko platoa guztiz moldatu dutela jakinarazi dute, «orain agertoki ezberdinak ditugu Plentzia Telebistako platoon».

PTB Plentzia Telebistak «pausobat aurrera eman» gura izan du, bere «zerbitzua hobetu eta ahal bezainbeste etxeetako telebistara» heltzeko asmoz. PTBko kideek azaldu dutenez, uda osoan barne-lanetan jardun dira, «inurrien lana egiten», telebistarako laguntzaile berriak batzen. Izan ere, gogoratu dutenez, «denon laguntza beharrezkoa» da irabazi asmo bako elkarteak aldaketa horiek gauzatzeko. Oraindino ere laguntzaile izateko aukera dago. ◀

Gorliz

Gorlizko Udalak hiru langile kontratatuko ditu bost hilabeterako

Gorlizko Udalak, Uribe Kostako Behargintzagaz batera, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2015eko ekitaldiko laguntza deialdia ipiniko du martxan. Hala, hiru langile kontratatuko dituzte, bost hilabeterako. Tarte horretan, kontratatutako langile berri horiek udalerrian hobetze-lanak egiteaz arduratuko direla azaldu du Udalak. Deialdi hori Gorlizko lanbakoei dago zuzenduta. Hautaketa 2015eko martxoan onartutako ebazpenaren irizpideen arabera egingo da; Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiak egin zituen irizpideak.

Hautagaiek Lanbiden izena emanda egon beharko dute. Horretarako, Lanbide eskatutako lanbideen artean, nahitaez «herri-lanetarako peoiak, oro har» aukera azaldu behar dute. Curriculumetan, aldaketak hila- ren gura arte egin ahal izango dira. ◀

Uribe Kosta



Gizarte Ekintza Sailak 25 familia behar ditu hainbat harrera-mota egiteko.

Umeak hartzeko 25 familia behar dituela ohartarazi du Bizkaiko Foru Aldundiak

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak jakinarazi duenez, 25 harrera-familia behar dituzte, atoan. Harrera-mota kontuan hartuta, honelako familiak beharrezkoak dira: 5 familia, umeak premiazko harreran hartzeko; 15 familia, aldi baterako harrerak eta harrera iraunkorrak egiteko, 2 eta 9 urte arteko umeak zaintzeko; eta 5 familia, neba-arreben taldeak hartzeko prest daudenak.

Harrera bakoitzaren iraupena ume bakoitzaren beharrian espezifikoen arabera izango da, baita adingabea

etxetik ateratzea eragin zuten arazoak konpontzeko gurasoek behar duten denboraren arabera ere. Harrera-egile izan gura dutenek balorazio- eta prestakuntza-prozesu bat egin behar dute, pribatutasuna bermatzeko, eta adinbakoentzat eta familientzat esperientzia ona izateko. Bete beharreko baldintzak hauek dira: umeak zaindu eta hezteko erantzukizuna hartzea, horretarako denbora izatea, eta harre- arloko teknikariei laguntzea. ◀

info+: acogimientofamiliar@bizkaia.net
944 470 737

Uribe Kosta

Burdinaren garrantzia ekarriko dute gogora urrian, eskualdera



Bizkaiko Foru Aldundiak, hainbat udal bizkaitarregaz batera, Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak antolatu ditu; aurtun, burdinaren eraginari begirakoak.

Burdinak garrantzi handia izan du Uribe Kostaren, eta, oro har, Bizkaiaren, garapenean. Hori dela eta, Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak burdina izango du oinarri; urrian hamaika jarduera egingo dira eskualdean.

Burdina eta Bizkaia estu lotuta daude. Lurralde horren aberastasunaren eta garapenaren subjektu eta objektu izan da, eta, denboraren poderioz, kultura-ondare material eta immaterial aberats bihurtu da; «burdinaren kultura»-ren adierazgarri. Duda barik, burdinaren ustiapenagaz batera garatu da Bizkaia, burdina ugaria izan baita lurraldean; eta horregatik, Bizkaiak burdin asko eduki duenez, beste herrialde eta kultura batzuek egon da harremanetan. Historiaurretik etorri izan dira bertora burdin bila, eta mineral horren atzetik urrutitik etortako horiek euren ohiturak ere ekarri dituzte gurera; geureganatu egin ditugun usadioak. Berbarako, bizkaitarrek hainbeste maite duten futbola «burdin-sukarrak» eraginda heldu zen Bizkaira, ingelesen eskutik.

Burdina gizakiaren beharretara egokitu da, eta, horren ondorioz, oso ondare aberatsa sortu da Bizkai osoan, baita Uribe Kosta eskualdean ere.

Hala, 2015eko Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan, burdinarekiko lotura zer-zelakoa izan den gogoratu ahal izango dute bizkaitarrek eta, bide batez, gure lurraldearen garapenean

Burdinaren ustiapenagaz batera garatu da Bizkaia, minerala ugaria izan baita lurralde honetan.

lagundu eta garena izatea eragin zuen mineral horri gorazarre ere egin ahal izango diote. Horretarako, herrialde osoan, hainbat jarduera, ekimen, berbaldi zein bisitaldi antolatu dituzte, besteak beste.

Burdina, Uribe Kostan

Hil osoan, eskualdearen eta burdinaren arteko loturak azaleratzeko hamai-ka jarduera hartuko dituzte Uribe Kos-

tako hainbat herrik, doan. Berangon, Simon Otxandategi «berangoztar gailena» hobeto ezagutzeko bisita egingo dute hilaren 17an. Erandion, berriz, itsasadarrak Bizkaiko garapenean zer-zelako garrantzia izan zuen azalduko dute, iragan hurbila akordura ekarriz. Getxon, oster, burdina zelan ontziratut, eta Abratik abiatuta burdinak Bizkaiko historian izan duen garrantzia ezagutu ahal izango dute. Begoñako galerietan, XX. mendearen aldaketa ekonomikoaren berri ere izango dute bisitariak, eraikinaren balioa handitzeko plana ezagutzeagaz batera. Gorlizen itsasargira joan, bertoko ingurua eta kostaldeko bateria ezagutzeko aukera egongo da, baita burdinaren erabilera ikusteko ere. Plentzian, berriz, burdinak hiribilduaren bilakaeran izan zuen eragina ezagutaraziko dute: burdinaren eragin ekonomikoaren eta sozialaren gakoak, hain zuzen ere. Azkenik, Sopelan azalduko dute gizakiek burdina zelan landu jakin aurretik, lanabesak egiteko zer material erabiltzen zuten. Bertan silex ugari dago, eta material horregaz, antzinako gizakiek modu askotako tresnak egiten zituzten. Hala, material hori ezagutzeko bisitaldia egingo dute urriaren 16an. ◀

harremanetarako: bizkaikoa.oej@bizkaia.eus

Plentzia

Urriak 4 (eus.) eta 18 (gast.), 11:00etan

«Geltokia eta Portua, burdinaren eskutik lotuta» bisita gidatua, Plentziako Turismo Bulegotik.

Erandio

Urriak 10, 15:30ean (gastaniaz); urriak 11, 15:30ean (euskaraz); urriak 24, 13:00 (gastelaniaz), eta urriak 25, 13:00 (euskaraz)

«Itsasadarretik ikasten» bisita gidatua, Altzagako ontziralekutik abiatuta.

Getxo

Urriak 10, 11, 12, 24 eta 25; 11:00-12:00

«Burdina eta horren garrantzia, Abran» bisita gidatua, Bizkaia Zubiaren ondoan.

Urriak 10, 11, 12, 24 eta 25; 13:00, 16:00 eta 17:00etan

«Begoñako galeriak», galerien aparkalekuan.

Sopela

Urriaren 16an, 11:00etan

«Ibilaldi geologikoa Sopelatik» bisita gidatua, Sopelako Turismo Bulegotik

Berango

Urriaren 17an, zapatua. 17:30ean

«Otxandategi: Askotariko jarduera». Moreagako autobus-geltokian.

Gorliz

Urriaren 17an, 10:00etan, eta urriaren 20an, 15:30ean

«Lurretik objektura» bisita gidatua, Astondotik abiatuta.



Irailaren 23an, 2015-2016 ikasturteko mintzapraktika-egitasmoak aurkeztu zituen Euskaltzaleen Topaguneak. HIRINET.NET

Zugaz berba egin gura dut

Uribe Kosta eskualdeko eragileak euskarazko berba-taldeak osatzeko lagun bila dabiltza, ikasturte berrira begira.

Berbalagun, mintzakide edo solaslagun egitasmoek euskaraz egiteko ohiturarik ez daukaten lagunak ohitura daukatenakaz elkartzen dituzte, erabileran eragiteko, eta berbarako konfiantza eta gune berriak eskaintzeko. Euskaltzaleen Topaguneako elkarteek bultzatutako egitasmoetan, 6.000 berbalagunetik gora elkartu ziren aurreko ikasturtean, Topaguneak emandako datuen arabera. Elkartearen artean daude Egizu Getxo Euskaldun eta Berbots Erandion Euskaraz.

Batetik, Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak 1996an abiatutako berbalagun-proiektua 2000. urtean hartu zuen bere gain Egizuk; Bizarra Lepoan bera eta Getxo udalerriko hiru euskaltegiak (Lamia AEK, Udal Euskaltegia eta Jose Antonio Agirre) dira egitasmoaren kideak. Iaz, 180 berbalagun ibili ziren Egizuk antolatutako 21 taldeetan. Horrez gainera, partaideen za-

letasunek aitzakia hartuta, mendi- eta bizikleta-taldeak martxan dauzkate; Erandioko Berbots eta Sopelako Aitxu! euskara-elkarteak antolatzen dituzten berba-txangoak alde batera utzi barik. Egizuko kideek nabarmendu dutenez, aurten «bidelagun» bila dabiltza; «euskaraz jakin eta taldeetan laguntzeko prest dauden» gizon-emakumeen bila, alegia. Horrenbestez, Getxo udalerriko berbalagun-egitasmoan izena emateko epea urritik aurrera zabalik dago; e-postaz, telefonoz, webgunearen bidez edo posta arruntez egin daiteke.

Bestetik, Berbots Erandion Euska-

Gurasolagun bila dabiltza, ikasgeletatik kanpo ere, euskaraz egin ahal izateko

raz elkarteak, oster, 10 urte darozta gutxi gorabehera berbalagun-egitasmoagaz. Erandioztarrek azaldu dutenez, «kanpaina hasiera irailetik urrira doala esan dezakegu; hilabete horietan, pasa den urteko berbalagunakaz harremanetan jartzen gara, euskaltegietan aurkezpenak egiten dira, eta

aurkezpen orokorra egiten da». 2014-2015 ikasturtean, 40 pertsona baino gehiago igaro ziren berbalagun-egitasmotik.

Beste aukera batzuk

Hala ere, egon badaude eskualdeko euskara-elkarteetatik, eta, hortaz, Euskaltzaleen Topagunetik kanpo, mintzapraktika proiektuak dauzkaten beste eragile edo erakunde batzuk.

Bederatzi urte dira, Mankomunitateko Euskara Zebitzuak Uribe Kostako Berbalagun egitasmoa martxan ipini zuenetik. Izena emateko epea irailaren 7tik 30era egon da zabalik, baina arduradunek jakinarazi dutenez, «beranduago izena eman gura dutenek ere aukera izango dute». 2014-2015 ikasturtean, 16 berbalagun berri izan zituzten, 9 taldetan banatuta: 5 Sopel, 2 Plentzian eta 1 Gorlizen; denera, 74 pertsona. Gainera, bariku arrastiko Sopelako taldea poteoan joateko lotu ohi da.

Azkenik, Leioako Mastitxu udal euskaltegiak joan den ikasturtean abiatu zuen Berbalagun egitasmoa. Aurreko urteetan Lamia AEK euskaltegiak zeukan berbalagun-egitasmoaren ardura; Mastitxuk ere parte hartzen zuen. Baina, Euskara Zebitzuak udal

euskaltegiari eman zion mintzapraktika-proiektuaren kudeaketa. 2014-2015 ikasturtean, 58 lagunek eman zuten izena Leioako berba-taldeetan parte hartzeko. Daborduko zabalik daukate ikasturte berrirako izen-ematea. ◀

Berbalagun-taldeak eskualdean

Getxo

Egizu Getxo Euskaldun elkarte
Martikoena 16, 2-3, 48992 Getxo
619 935 541
egizugetxo@gmail.com
www.egizu.eus

Erandio

Berbots Erandion Euskaraz elkarte
berbalagunerandio@gmail.com
www.berbots.eus

Leioa

Berbalagun egitasmoa
688 850 129
berbaldun.leioa@gmail.com

Gainontzeko herriak

Uribe Kostako Mankomunitatea
Euskara Zebitzua
688 899 868
ukberbalagun@gmail.com
ukberbalagun.wordpress.com



LEIOA

Zahartzaroaren inguruan, Perseo Zineforumean

Zaharrak izenburua ipini diote, ikas-
turte hasi berrian, Kultur Leioako
Perseo Zineforumari hasiera eman-
go dion pelikula-sortari. Proiek-
zio denak gaztelaniaz izango dira,
20:00etan; eta 2,50 euroan egongo
da sarrera. Hala, urriaren 6an, mar-
tizena, *La fiesta de despedida* filma
eskainiko dute. Sharon Maimonek
eta Tai Granitek zuzendu zuten is-

raeldar eta alemaniar jatorrizko film
luze hori; eutanasiaz dihardu.

Yehezkel izeneko 75 urteko gizo-
nezko baten istorioa kontatzen du
ikus-entzunezkoak; Jerusalengo adi-
nekoen egoitza batean bizi da gizo-
na. Bere lagunik onena Max hilzorian
dago, eta bakean hil gura du; Maxen
desioa betetzeko asmoa dauka Yehez-
kelek. Horretarako, bere buruaz beste

egiten laguntzeko makina bat eraiki-
ko du. Komedia eta drama nahasten
ditu 95 minutuko iraupena daukan
pelikulak.

Zaharrak zikloko gainontzeko fil-
mei dagokienez, hilaren 13an, *Vivir
sin parar* proiektatuko dute; hilaren
20an, ostera, *Quedate conmigo* egon-
go da ikusgai; eta azkenik, hilaren
27an, *Corazon silencioso*. ◀

SOPELA

Hareaz egindako irudiez,
istorio harrigarriak
sortuko dituzte Kurtzion

Zapatuan, urriak 3, *Sueños de arena*
ikuskizuna eskainiko du Ytuquepin-
tas antzerki-taldeko Borja Gonzalezek.
Hitzordua 19:00etan jarri dute, Kurtzio
kultur etxean; sarrera 3 euroan eduki-
ko dute umeek, eta 5 euroan, helduek.
Hareaz egindako irudiak, zirkua, zu-
zeneko musika, tamaina handiko txo-
txongiloak eta pintura azkarra batzen
dituen ikuskizun harrigarria da *Sueños
de arena*. Pantaila erraldoi batean
proiektatutako irudiakaz lagunduta,
eta kristal baten gainean eskuakaz ha-
rea landuz, istorio zoragarriak sortuko
ditu Gonzalezek. ◀



© BORJA GONZALEZ

2015/10/01 - 2015/10/05

Umeentzako mural-tailerra

Hainbat herri | Uribe Kosta
Euskaraz Olgetan egitasmoaren barruan,
Urriaren 1ean, Plentziako Ontziola plazan
(17:30); 2an, Urdulizko Antsonekoa plazan
(17:30); 3an, Gorlizko Ibarreta plazan (12:00);
4an, Larrabasterrako Urgitxeta plazan (12:00)
eta 5ean, Armitzan (17:00). Doan.

2015/10/01 - 12:00

ERANDIO

Euskarazko ipuinak bueltan, urriagaz

Kontu Kantoi ipuin-kontalari tal-
deak *Nire bizikleta* izenburuko
saioa eskainiko du eguaztenean,
urriak 7, Altzagako liburutegian.
Hilaren 15ean, ostera, Astrabu-
duko Josu Murueta kultur etxean
egingo dute ekitaldia; eta hila-
ren 23an, Erandiogoikoko kul-
tur etxean. Azken saio hori,
19:00etan; Altzaga eta Astrabudu-
koa 18:00etan hasiko dira. Ekital-
di denak ilustratuak izango dira;
berbek eta marrazkiek bat egingo
dute, euskaraz. 4 urtetik gorako
umeentzat da ikuskizuna. ◀

2015/10/03 - 18:00

Kantu-poteoa, Taberna Ibiltaria taldeagaz

Euskadi plaza | Erandio
Goi-Aide dantza-taldearen 50. urteurrenaren
ospakizunen barruan.

2015/10/03 - 20:00

**Bakarrizketak, Kalderas eta
Marco Antoniogaz**

Lagunartean kantuan ibili gura duzu?

Lagun arteko giroan kantuan ibiltzea atsegin dutenek, urriaren tean, eguena, edukiko dute horretarako aukera. Kan-taguneak Altzagako posta-bulego zahar-rean ipini du hitzordua. Kantuan ondo pasatzeko gogoa baino ez duzu behar! ◀

Plataforma Tiranteren ikastaroak martxan

Eguenagaz, urriak 1, hasiko dira Plata-forma Tirantek ikasturte honetarako prestatutako ikastaroak. *Zumba*, flamenkoa, eta dantza-garailidea emango dituzte Lutxanako eskola zaharrean. ◀

info+: www.plataformatirante.com / 644 433 373

Antzerkiaz goatzeko aukera, Areetan

Zapatu honetan, urriak 3, *Comicas atribuladas* *buscan obra* antzezlana eskainiko du Luna Llena taldeak. Hitzordua 19:00etan izango da Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Daborduko salgai daude sarrerak, 3 euroan. ◀

Bisita gidatua Begoñako galerietara

Begoñako galeriak (Algorta) | Getxo
Urriaren 3an, 13:00etan, eta 7an, 18:30ean, egongo dira bisita-gidatuak, euskaraz. Sarrera doan. Erreserbak egiteko: 944 910 800

2015/10/01 - 19:00

ArgiHizkiak lehiaketako sari-banaketa eta erakusketaren inaugurazioa

Kultur Leioa | Leioa
Erakusketa-aretoan, hilaren 18ra arte egongo da. Ordutegia: astegunetan, 10:00-20:00; eta jaiegunetan, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. Sarrera, doan.

2015/10/02 - 2015/10/03

Inkestas Rock jaialdia

Udaletxeko plaza | Sopela
Barraks Promotion-ek antolatuta, Sopelako Udalaren laguntzagaz. Barikuan, hainbat estilotako zortzi taldek joko dute, 18:05etik aurrera; eta zapatuan beste bederatzik, 17:10ean hasita. Doan.

2015/10/02 - 17:30-19:00

Ludoteka

Udal liburutegia | Barrika
3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Doan.

2015/10/02 - 19:00

Surfari buruzko film laburrak

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Sopela Kosta Fest jaialdiaren barruan antolatutako lehiaketara aurkeztutako lanak. Sarrera, doan.

2015/10/03 - 2015/10/31 - 17:00-20:00

Emakume Etorकिनен Topaketa

Emakumeen labekuntza Eskola | Getxo
Zapatu birik behin izango da, Algortako Martikoena kaleko 16. zenbakian. Izen-ematea: mujeresmigradas@getxo.eus edo 696 627 958.

2015/10/03 - 12:00

Espainiar Estatuari herri-epaiketa

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo
Gabi Basanez algotarraren eta epaituko dituzten Askapeneko gainontzeko kideen aldeko ekitaldia.

2015/10/03 - 12:30

Dantza-taldeen erakustaldia

Euskadi plaza | Erandio
Urriaren 2tik 4ra ospatuko du Goi-Alde dantza-taldeak 50. urteurrenarena. Ekitaldien artean, hilaren 3an, Goizaldik (Donostia), Baztango Mutildantzari Taldeak (Arizkun) eta Gaztedik (Santutxu) dantzatuko dute.

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Encomiados umore-bakarizketen zirkuituaren barruan. Sarrera: 2 euro.

2015/10/03 - 20:00

Leioako Udal Musika Bandaren kontzertua

Kultur Leioa | Leioa
Sarrera: 5 euro.

2015/10/04 - 09:00

Emakumeen Mundu Martxa Bizkaiko Zubia (Areeta) | Getxo

Egunotan Euskal Herrian ibiliko da. Portugaletetik irten, Bizkaiko Zubia igaro, eta Areetara helduko da, 10:30ean. Gosaria 09:00etan egingo dute. 11:30ak aldera, Algortako Txiki-Otaegi (San Nikolas) plazan geldituko da; 12:00etan, Bilborantz egingo du.

2015/10/04 - 13:30

Sopelako Lasterketa Nudista

Barinatxe hondartza | Getxo eta Sopela
Sopelako Udalak eta Munarri Atletismo Taldeak antolatu dute *Paixi Ros Sarria*-ren 16. edizioa. Izen-ematea (doakoa) lasterketaren egunean egin daiteke.

2015/10/04 - 18:00

Aviones 2. Equipo de rescate umeentzako filma

Berango Antzokia | Berango
Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/04 - 19:00

Korrontzi taldearen kontzertua

Euskadi plaza | Erandio
Goi-Alde dantza-taldearen 50. urteurrenaren ospakizunen barruan. Sarrera doan.

2015/10/06 - 17:00-19:00

Ludoteka, Plazara

Ontziola plaza | Plentzia
Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea, ezta kuotarik ordaintzea ere. Umeek tutoreak lagunduta joan beharko dute.

2015/10/07 - 17:30-19:00

Literatura-tailerria

Udal-liburutegia | Barrika
Joaten den jendearen arabera erabakiko dute zein hizkuntzatan egin. Sarrera, doan.

2015/10/07 - 20:00

Txorimaloren 10. urteurrena antolatzeko batzar irekia

Txiki-Otaegi (San Nikolas) plaza | Getxo
Eguaztenero egiten dituzte batzarrak. Parte-hartzea, libre.



© KUKAI

Eskale baten ametsak, Leioan

Kalean bizi den eskale bat haragizitatuko du Claire Ducreux dantzari frantsesak, *Refugiee Poétique* lanean. Munduari zentzua eta edertasuna itzultzeagaz amets egiten du eska-leak. Pertsonaia horrek, ahula denaren metaforak, erronka artistiko eta gizatiar horretara daroa Ducreux. ◀

Noiz: Urriak 2, barikua. 20:30

Non: Kultur Leioa

Sarrera: 12 euro

Ikuskizuna doan edukiko dute Kultur Leioako bazkideek

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

argihizkiak.com

argihizkiak

Urriaren
1etik18ra
Kultur Leioan

Astegunetan
10:00-20:00
Jaiegunetan
11:00-14:00
17:00-20:00

egizul



hiruka

Erandiokoak baino ez diren kantak jaso dituzte disko batean



Denera, hainbat talde eragiletako 150 lagun inguruk eman diete kanta horiei bizi berria. © ERANDIOKO UDALA

Erandioztarrek luzaroan gordetako kantuak herritar denek gozatzeko moduan ipini gura izan ditu Udalak. Hala, zortzi abesti batzen dituen diskoa argitaratu du. Euskara Zerbitzuak aleak banatuko ditu, doan.

Erandioko Udalaren ekimenez, irailaren 19an aurkeztu zuten *Haran Handiaren doinuak* diskoa. Zortzi kante osatzen dute aipatutako lana; «zortzi abesti horiek beste askoren artean aukeratu dira ezaugarri bereziak zituztelako:

udalerrian baino ez direlako jaso, edo jasotako bertsioa oso berezia zelako», azaldu dute agintariek. Gaineratu dutenez, «erandioztarrek luzaroan gorde dituzte eta gure esku ipini». Herritar denek ezagutzeko moduan ipini gura ditu Udalak orain, gal ez daitezen.

Hala, diskoa Euskara Zerbitzuaren bulegoan lor daiteke, doan.

Azaldu dutenez, jasotako letra eta doinua errespetatuz grabatu ahal izan dira kanta batzuk. Beste batzuek, ostera, doinua edo letra zati bat galduta zeukatenez, moldatze-lana beharrezkoa izan dute. Lan horretaz Alberto de Abajo, Itsaso Arrieta eta Xabier Zabala arduratu dira.

Hori eginda, grabazioak egiteko, borondatezko lana egin dute herriko hainbat eragilek: abesbatzak (Alta-

ga, Mendibaiarte eta Kantagunea), ikastetxeak (Altzaga, Goikolanda, Ignacio Aldekoa eta Jado), Udal Musika Eskolako irakasleak eta ikasleak eta Berbots Euskara Elkartea. Denera, 150 pertsona inguruk jardun dute lanean, «Erandioko kantutegia» deritzoten diskoa argitaratzeko. Kanten mp3 formatuko grabazioak, letrak, partiturak, aplikazio didaktikoa zein lanaren *marketing-off*-aren bideoa web-helbide batean jaso dituzte. ◀

info+: www.haranhandiarendoinuak.eus

Leioako Pop-rock Lehiaketarako kartela aurkezteko epea zabalik dago

Daborduko XVI. Pop Rock Lehiaketa iragarriko duen kartelaren bila dabil Leioako Udala; urtero legez, sariketa baten bidez aukeratuko dute. Zazpigarren edizioa du aurtengoa deialdi horrek; oraingo honetan, urriaren 23ra arte egongo da lanak entregatzeko aukera. Horretarako, Aterpe Leioa Gaztegunera (Aldapabarrena 2) jo beharko dute kartel-lehiaketan parte hartu gura dutenek. Saria ez da makala: 600 euro jasoko ditu irabazleak.

Epaimahaiak azaroaren 10erako aukeratuko ditu finalistak izango diren bost lanak. Data horretatik azaroaren 22ra arte, bozkatzeko aukera

edukiko dute herritarrek, gogokoen dauzkaten hiru kartelen alde (3 puntu, 2 puntu eta puntu 1), Kultur Leioaren webgunearen bitartez. Epaimahaiaren eta ikusleen boto gehien jasotzen dituenak irabaziko du, antolatzaileek zehaztu dutenez.

Sari-banaketari dagokionez, azaroaren 27an egingo dute, 18:30ean, Kultur Leioan. Bestalde, aurkeztutako lanak ikusgai egongo dira azaroaren 10etik abenduaren 11ra, Aterpe Leioa Gaztegunean, «betiere epaimahaiak zeintzuk erakutsiko diren aukeratzeko eskubidea gordez eta lanen kalitatean oinarrituta». Erakusketa amaitutakoan bueltatuko dizkiete jabeek. ◀

Oinarriak

Parte-hartzaileak

14 eta 35 urte bitarteko gazteak.

Lanak aurkezteko epea

2015eko urriaren 23ra arte.

Epaimahai eta bozkatzea

Azaroaren 10erako, bost finalistak aukeratuak ditu epaimahaiak.

Azaroaren 22ra arte, hiru kartel (3 puntu, 2 puntu eta puntu 1) bozkatzeko aukera egongo da Kultur Leioaren webgunean.

Sari-banaketa

Azaroaren 27an, 18:30ean, Kultur Leioan. Irabazleak 600 euro jasoko ditu.

info+: 944 055 850 / gazte@leioa.net

Urriaren 15era arte luzatuko da PuntuEUS Fundazioak abiatutako kanpaina berria

Kanpaina berria abiatu du PuntuEUS Fundazioak. Parte-hartzaileek .eus izatea gura duten enpresa, denda, erakunde edo taldearen edozein euskarri argazkia atera eta Facebooken, Twitterren edo Instagramen argitaratu beharko dute, *#markatupuntueus* traola erabiliz. Ekimenaren webgunean argitaratuko dira argazkiak, eta bozkatzeko aukera edukiko dute erabiltzaileek. Bozkatuenei astero Samsung Galaxy tableta bat oparituko zaie. Gainera, bi lagunentzako asteburua igarotzeko landa-etxe baten egonaldia zozkatuko dute amaieran. Erandioko Udala .eus izatea eskatu dute. ◀

info+: www.markatu.eus

«Surf-zinema egiteko maila nahikoa dago eskualdean»



Egitasmoan, Jon Aspuru, Mitxel Produksioak, Isio Noya eta Aritz Albaizar izan ditu bidelagun sopoloztartutako zamudioztarrak.

Txus Delgado Morok

Sopela Kosta Fest jaialdian aurkeztu du surfaren gaineko filma.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Galeako olatu handien 2014ko txapelketarako entrenamenduak eta surflariei egindako elkarrizketak batu ditu *Big wave in the Basque Country* dokumentalean (32 minutu) Txus Delgadok (Zamudio, 1967); Sopelan bizi da orain.

Zer harrera eduki du dokumentalak?
Etxean aurkezteko aukera eduki dut...

Niretzat garrantzitsuena izan da dokumentalean parte hartu duten surflariak gustura egotea, filma ikusi ostean; hala izan da. Gainera, ezagutzen ez nuen jendea etorri zen aurkezpenera, eta proiektioaren akabuan, zoriondu egin ninduten. Oso pozik nago!

“*Nazioarte-mailako zinemaldietan ere aurkeztu gura dut*”

Beste leku batzuetan emango duzu?
Asmoa hori da. Hasteko, barikuan, urriak 2, osterara ere Sopela Kosta Fest

jaialdian jarriko dute, film laburren lehiaketara aurkeztutako lanakaz batera; 19:00etan hasiko da saioa, udal-etxeko plazan. Kontua da jende asko dokumentala ikusi barik geratu zela, egun horretan ezin zelako etorri. Udal arduradunak berba egin ostean, berriro ematea lortu dugu. Bestalde, daborduko, hainbat jaialditara bidaltzen hasi naiz: Surf City Festibal, Donostiako Zinemaldia... Ingeleseko azpitituluak ere ipiniko dizkiogu nazioarte-mailako festibalean aurkeztu ahal izateko. Izan ere, ikusgai ipini gura dut urtebetean egindako lana.

Zelan bururatu zitzaizun?
Galeako olatu handien 2013ko txapel-

keta ikusten nengoela bururatu zitzaizdan dokumentala grabatzea; besteak beste, David Bustamante, Aritz Saratzaga, Natxo Gonzalez eta Jaime Fernandez surflariei komentatu nien, eta ondo iruditu zitzaizten. Olatu handien apar artean ibiltzen dira horiek denak; txapelketa bera baino, egiten duten murgilaldi bakoitza grabatu behar nuela konturatu nintzen. Entrenatzeko ez ezik, disfrutatze ere sartzen dira uretara, olatu handien bila...

Laguntzarik eduki duzu irudi horiek denak lortzeko?

Ogibidez suhiltzaile naiz, eta seme-alabak ere badauzkat; ezin nuen surflariak dabiltzan Uribe Kostako txoko den-denetara heldu. Hala, kamera eskuan surflarien artean ibiltzen diren Jon Aspuru, Mitxel Produksioak eta Isio Noyagaz harremanetan jarri nintzen. Eurek utzitako irudiak, nik grabatutakoak eta elkarrizketak batuta, istorio polita harilkatu dugu akabuan.

Errealizazio-lanetan, osterara, hainbat proiektutan lagundu izan didan Aritz Albaizar eduki dut alboan. Film laburretan dabil bera.

Bestalde, Saioa Villanueva alkate ohia buru, Sopelako aurreko udal gobernuak emandako laguntza eskertu gura nuke; baita musikagaz lagundu digutenak gogoratu ere. La Triangu tabernatik atera da hori guztia; besteak beste, The Golden Grahams, The Longboard eta Smile taldeek bertan egindako zuzenekoie esker.

Surfaren inguruko dokumentalak sortzen jarraitzeko asmoa daukazu?

Aritz Albaizarri esan diot film luzea egin behar dugula... Harropuzkeria izango da, agian; kar, kar, kar. Hala ere, *Big wave in the Basque Country* dokumentalak eduki duen harrera ona kontuan hartuta, ahalegintzeagatik ez dugu ezertxo ere galduko. Film luze bat egitea ez da kontu erraza. Baina apur bat nazkatuta nago Ameriketako Estatu Batuetan egiten dituzten surf-filmakaz; olatu handiak hartzen dituzten eskualdeko surflarien artean maila nahikoa dago, horrelako pelikula bat egiteko. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota: 33 €
- Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltsailea

☐ Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena _____ NA _____

Abizenak _____

Helbidea _____

Posta kodea _____ Herria _____

Herrialdea _____ Telefonoa _____

E-posta _____

Kontu korrante zenbakia _____

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fixategi automatikoki bazeen sartuko dira, erabiltzaileek haren erabilera onartzen jarraitzen duten bitartean. HIRUKAri emandako datuak ez dira salduko, eta erabiltzaileek beren datuak erabiltzeko erabakia hartu dezakete. HIRUKAri emandako datuak erabiltzeko erabakia hartu dezakete. HIRUKAri emandako datuak erabiltzeko erabakia hartu dezakete. HIRUKAri emandako datuak erabiltzeko erabakia hartu dezakete.

«Ni segituan aspertzen naiz kanta zaharrekin; berriak egiten hasi nahi dut»

Tania de Sousa abeslari zestoarrak orain urtebete ekin zion bakarkako ibilbideari, The Dispositives eta Zuloak taldeetan ibili ostean. 2014tik hona ia 40 kontzertu eman ditu, Fermin Muguruzak ekoiztutako *Tania Tank* diskoa aurkezteko. Sopela Kosta Fest jaialdian ere egon da. Orain, lasaiago hartu eta kanta berriak prestatzen hasi gura du De Sousak.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Urtebete igaro da, *Tania Tank* diskoa aurkezteko bira hasi zenutenetik. Zelakoa izan da orain arte egindako bidea?

Nahiko indartsu hasi ginen. Hala ere, esan beharra dago gauzak zail samar daudela. Gure helburua da jendea pixkanaka-pixkanaka irabaztea. Ez gara kontzertuetara propio jende piloa etortzen zaion talde horietariko bat; baten bat hurbilduko da gure abestiak gustuko dituelako, baina orokorrean agertoki inguruan dabilen jendea etortzen zaigu. Bidea pixkanaka ari gara egiten.

Kontzertuak lotzea ere zaila da. Ia 40 kontzertu egin ditugu urtebetean; ez da asko-asko izango, baina gutxi ere ez da. Bidea egiten ari gara, eta bidean jarraitzen dugu.

Sopela Kosta Fest jaialdian ere entzun zaituztegu. Zelakoa izan da sopoloztarrek emandako harrera?

Bai, oso gustura egon gara. Gure saiora ez zen jende asko etorri, ehun pertsona inguru egongo ziren... Sopela Kosta Fest jaialdiko antolatzaileek esan zigutenez, kontzertu gehiago zegoen egun horretan. Hala ere, nahiko harrera ona egin ziguten; eta emanaldia gustatu zitzailela uste dut. Behintzat, Gipuzkoako publikoa baino apurtxo bat beroagoak izan ziren.

Zer ikasi duzu urtebetean egindako bakarkako lanean, ibilaldian?

Batez ere, gero eta profesionalagoa izaten ikasi dut. Metodologia bat hartzen duzu kontzertuak anto-

latzeko, lekura joateko, entseguak egiteko... Azkenean, profesional bilakatzen zara, nahiz eta honetan dirurik ez atera. Gutzika, gauzak errazago egitera ohitzen zara; asko ez korapilatzeraz. Eta agertoki gairen zaudenean, dagoeneko ez dituzu hasiberria zinela zenituen beldur horiek sentitzen; seguruago sentitzen zara. Lehen aipatu bezala, urtebete dara-

“**Diskoan, kantez ez daukate zuzenean izaten duten indarra. Jotzen entzuten gaituztenean, esaten digute aldea dagoela**”

magu jada *Tania Tank* diskoa herriz herri aurkezten, eta denbora horretan, ia 40 kontzertu eman ditugu. Denbora horretan beldurrak kentzen ikasi dut, eta segurtasuna neureganatu dut.

Zuzeneko boteretsua eta ahots nabarmena daukazula diote. Zuk zer uste duzu?

Kar, kar. Besteek esan beharko dute, baina egia da diskoan abestiek ez daukatela zuzenekoan izaten duten indar berbera. Zuzenean jotzen entzuten gaituztenean, jendeak esan ohi digu alde handia dagoela diskotik kontzertuetara... Ez da nahita egiten dugun

gauza bat. Horrela ateratzen da, eta kantuek beste dimentsio bat hartzen dute.

Sopelatik nora eroango zaituzte birak? Non dira hurrengo emanaldiak?

Dagoeneko, lasai hartzen ari gara. Ni segituan aspertzen naiz kanta zaharrekin; berriak egiten hasi nahi dut. Kontzerturen bat ateratzen bada, primeran; baina, ez dugu bira bat izango balitz bezala hartuko, hilaibetero hainbat saio eginez. Uste dut azaroan zer bait daukagula... Hala ere, ziklo bat amaitu dugu, eta orain kontzentratu behar dut abesti berriak egiten, baita taldekideekin lokalean lanean aritzen ere. Badakit zaila dela, baina lasaitasunez hartu nahi dut; askotan ematen du epe bat daukazula diskoa ateratzeko... Inondik inora. Gauzak ez dira horrela egiten.

***Tania Tank* diskoagaz ekin zenion bakarkako ibilbideari. Zer aurkituko du entzuleak lan horretan?**

Nik uste dut eklektikoa den zerbait dela *Tania Tank* diskoa; ez dugu estilo bakararra jorratzen. Errespetu osoz... badaude monolitikoak diren talde asko; jorratzen duten estiloa izaten da haien ezaugarri nagusietako bat. Egia da gure kantez pop-melodiak dituztela, baina ez gara horren itxiak. Abesti batek beste estilo batekoa izan behar badu, horrela izango da. Azkenean, kantuari entzun behar diozu, alderantziz egin beharrean. Ezin duzu pentsatu: «nire estilo hau da. Hortaz, dena egingo dut estilo horretan». Nire iritziz, kantu bakoitzak zer behar duen ikusi



behar du musikariak. Gure kasuan, *Tania Tank* disko irekia da, eta jendeak gustura entzungo du denetarik dagoelako. Ez dira aspertuko. Guk ez dugu ezer asmatu, baina zerbait freskoa da, behintzat.

Izenburua bera eta estetika indartsuak dira. Zer adierazi gura du horrek guztiak?

Niri beti gustatu izan zait irudi indartsu bat erakustea, edo nire gorputzarekin zerikusia daukan irudia bultzatzea. Azken finean, nire izaera da; gezurrezko ezer ez da. Ni horrelakoa naiz, eta diseinugileak ere berehala nabaritu zuen. Polita gelditu zen.

Nondik atera zen diskoaren izenburua?

Tania Tank hitz-jolas bat da, baina ez bakarrik nire izenarekin. Esate baterako, *brain storming* edo ideien ekaitzaren ondorengo urratsak *think tank* edo pentsamenduaren tankea dauka izena; ateratako ideia horietatik guztietatik aukeratu behar duzu zeinek balio duen. Azken finean, *think tank* kontzeptuak nire diskoaren prozesua laburbiltzen du, eta nire ize-narekin ere jokatu genuen.

Hamabi kanta dauzka diskoak. Zer gai jorratzen dute abestiek?

Disko honetan gai pertsonalak jorratu ditut; nire bu-ruari, harremanei eta barneko sentimenduez dihardute kanteak. Ez dago gezurrezko ezer. Izan ere, azkenean, nahiko autobiografikoa izatea nahi nuen, esaldiak literalak ez diren arren. Abestiek nitaz hitz

egiten dute, eta esan daiteke horiek idaztea askapen moduko bat izan zela.

Kantaren bat besteak baino gustukoagoa daukazu? Zer dela eta?

Denek daukate zerbait besteak baino gehiago gustatu ahal izateko, baina «Eremuan» kanta da niri

“**Abestiek nitaz hitz egiten dute, eta esan daiteke, neurri batean, horiek idaztea askapen moduko bat izan zela**”

gehien gustatzen zaidana; diskoko zortzigarrena, alegia. Daukan letragatik eta melodiagatik izango da, agian.

Zer transmititu gura duzu zure abestiakaz?

Erantzuteko galdera zaila da; ez dut helburu bat jarri, ez dut pentsatu horretaz. Esan daiteke lehen beste modu batean konposatzen nituela kanta, taldearekin gehienbat. Hala ere, disko honetan nahi nuen abestiak neureak bakarrik izatea: nahiz eta laguntza izan kantuak osatzeko, gustura abesteko nireak izan behar zuten, nik nahi nuen moduan eginak. Nire bu-

ruarekin ondo sentitu nahi nuen. Gero, transmititu... Ba, ez dakit. Jende aurrean egonda, haiek gustura egotea izan zitekeen bilatzen nuen helburuetako bat, baina harago ez nuen joan nahi izan. Kantatzea gustatzen zait, eta eroso egon nahi nuen.

Zelan definituko zenuke zure musika?

Hori ere erantzutea zaila da, gehienbat lehentxeago esaten nuen horrexegatik. Diskoak denetarik dauka, baina azkenean pop-rock multzoan (melodia errepikakorrak, estrofa errepikarekin...) sartzen dela esan daiteke; gauza asko sartzen ditugu etiketa horretan. Dena den, kanta bakoitza ezberdina da; batek daki, hurrengo diskoan beste gauza bat jorratuko dugu; auskalo! Nire ustez, ez daukagu estilo zehatzik.

Oker ez banago, crowdfunding kanpaina egin zenu-ten diskoa finantzatzeko.

Iruditu zitzaigun tresna egokia izan zitekeela diskoa ezagutzera emateko. Izan ere, *crowdfunding* kanpaina batean irabazten duzun dirua ez da horrenbestera-ko; bidalketak, gastuak... azkenean diru gutxiarekin gelditzen zara. Bestalde, horrelako ekimen baten bi-tartez, zuzeneko harremana duzu publikoarekin; ez dira joan behar dendara zure diskoa erostera. Azken hori lortzea oso zaila da, ezaguna ez baldin bazara...

Iruditu zitzaidan polita izango zela nik bidaltzea diskoak, haiek jarraitzea prozesua... Blog bat kudeatu nuen, bideoak igo nituen... Jendea erakartzeko eta balizko entzuleekin harremanetan jartzeko tresna bat izan zen. Edonori galde diezaiokezu zenbat diru lortu duen *crowdfunding* kanpaina batekin, eta horrenbestera ez dela erantzungo dizu.

Bakarkako bideari ekinez, bilatzen zenuen hori aurkitu duzu denbora honetan?

Beti egon naiz talde ezberdinetan (The Dispositives, Zuloak...), eta horietan demokratikoa izan behar duzu erabakiak hartzerako orduan; hori ez zait asko gustatzen, ez nauelako betetzen. Nik nire kanta egin nahi nituen, nire musika estiloa bilatu; zerk betetzen ninduen bilatu nahi nuen. Horregatik ekin nion bakarkako bideari.

Gertatzen zaidana da unean uneko gauzeekin gustura ez dagoen pertsona horietako bat naizela; beti botatzen dut zerbait faltan. Orain, zeharo aspertzen naute *Tania Tank* diskorako egindako kanteak, eta ez dut gogo handirik horiek defendatzeko; zerbait berria nahi dut, asetuko nauena. Abesti berriak egin nahi ditut. Hala ere, egia da, azkenean gizakiok ez garaela ehuneko ehunetan asetzen.

Musikari bezala, non ikusten duzu zure burua hemendik aurrera?

Nahi dudana da pixkanaka-pixkanaka hasi, gero eta jende gehiago erakarri. Badakit zaila dela, baina kontzertuak ematen jarraitzen badugu, ez da gutxi; hori ere zaila izaten da, emanaldi bat antolatze-ko dirua behar delako.

Horri guztiorri gaineratu behar diogu Euskal Herrian musikan jardutea ez dela erraza, are gehiago euskaraz abesten baduzu. Honetaz bizi ahal izatea ere pentsaezina da kasu askotan. Gutxienez, heldu garen lekuan mantendu nahi dut, atzera egin gabe. Bestela, zerbait gaizki egiten ari garaela pentsatuko nuke. Gorago joaten bagara, primeran! Dena den, gustatuko litzaidake gure kontzertuez gozatzea jende gehiago hurbiltzea. ◀



350 laguneko proba abiatu aurretik, antolatzaileek omenaldia egingo diote Montxo Miranda pertika-jauzilari santurtziarrari. BERANGOKO ATLETISMO TALDEA

Berangoko Nazioarteko Milia jokatu da zapatu honetan, Gobelaldeko zirkuituan. 16:30etik aurrera korrika egingo dute ehunka atletek, nazioarteko izarrakaz batera.

Iazko Berangoko Milia izan zen Hego Euskal Herrian antolatzen den miliarik onena. Estatu espainiarreko mailan ere, hoberen baloratu zen proba izan zen. Halere, rankingean bigarrena geratu zen, azken hiru urteak kontuan hartzen baitira, Josu Hernandez Berangoko Atletismo Taldeko presidenteak azaldu duenez. «28 edizio daroatzagu, eta hasi ginetik ahalegindu gara probak oinarri-ki-

rola bultza dezan. Horrez gainera, sailkapenetan, goia jotzea lortu badugu, jasotako laguntza denagatik da, baina garrantzitsuena da klubean 90 atleta ditugula eskola-mailan, eta beste 60, federatuta». Hernandezegaz ados dago Jose Mari Sanz Bizkaiko Atletismo Federazioaren presidentea. Bere ustez, Berangoko Miliak jakin izan du krisialdia gainditzin: «ez da aurrekontuagatik, gauzak egiteko moduagatik

baino». Sanzek eskertu du atletismoak Berangon hartu dituen arreta eta batesa: «futbolaz harago, bizitza dago».

Maria Isabel Landa Berangoko alkateak onartu duenez, proba mantentzea «Berango bezalako herri barentzat ahalegin garrantzitsua da, bai ekonomikoki, bai gizonek eta emakumeek egiten duten ahaleginagatik ere. Horrek bilakatu du milia hau gaur egun den bezalakoa izatea».

Zeruan baino izar gehiago

Zapatuan korritu gura duenak eguean izango du izena emateko azken aukera, klubaren webgunean. Ikuste-

ra joango denak, ordea, Beijinggo Munduko Txapelketan lehiatutako 10 atleta topatuko ditu, eta 800, 1.500 eta 3.000 metroko munduko, Europako, Espainiako, Euskadiko eta Bizkaiko txapeldunak. Besteak beste honako izarrak izango dira Berangon: Solange Pereira iazko txapelduna, Iris eta Zulema Fuentes, Joanna Jozwik, Isabel Macias, Esther Guerrero, Iraia Garcia edo Garazi Lekunberri. Haizea Martinez etxeko atletak abiatuko du taldea. Gizonezkoetan, Manuel Olmedo iazko irabazlea han izango da, Rui Silva edo Abdel Mechaal legez. ◀

izen-ematea: berangoatletismo.com

Sopelako Lasterketa Nudista domekan egingo dute, Barinatxen

Patxi Ros Saria, edo, ezagunagoa denez, Sopelako Lasterketa Nudistaren 16. edizioa urriaren 4an egingo dute, domekan. Hitzordua Barinatxe hondartzan ipini dute, 13:30ean. Proba nudista hori, Sopelako Udalak eta Munarri Atletismo Taldeak antolatu dute elkarlanean. Izen-ematea doakoa izango da, eta lasterketaren egunean bertan egingo da, Barinatxe hondartzan.

Aurten, maila bi izango dira: bata, lekukotasun-lasterketa, kilometro batekoa, eta, bestea, lasterketa absolutua, bost kilometrokoa. Saria jasoko dute lasterketa absolutuko lehen hirurek. Gainera, oparitxoa emango die parte-hartzaile denei, eta domina bana, umeei.

Ohituraz, uztailean egin ohi da Sopelako Lasterketa Nudista, baina aurten atzeratu egin da. Izan ere, proba bertan behera gelditzeko arriskuan



Kirol-proba izateaz gainera, Sopelako lasterketa naturismoa normalizatzeko ekimena ere bada.

ere egon da. Krisialdiaren eraginez, Sopelako Udalak lasterketaren aurrekontuari egiten zion ekarpena jaitsiko zuela jakin izan zuten orduan antolatzaileek. Patxi Rosek uztailean azaldu zuenez, «maila jakin bat dugu, eta finantziazioa jaitsita, ez dugu gu-

txieneko kalitatetik jaisteko gogorik». Halere, proba «duina» izan dadin beharrezkotzat jotzen zuten laguntza lortzeko, Udalagaz batuko zirela iragarri zuen Rosek, bestelako finantza-bideak bilatzeko konpromisoa azaltzeaz gainera. ◀

Kosta Trailek 14.000 euro eman dizkie diabetikoei

Kosta Trail lasterketaren babesleek 14.000 euroko laguntza eman berri diote Bizkaiko Diabetes Elkarteari. Forum Sport, Salomon eta Laboral Kutxak irail amaieran egin zuten dohaintza da probak orain arte jasotako diru-ekarpenik handiena. Pasa den ekainaren 14an egin zen hamargarren edizioa, eta bertan parte hartu zuten kopuruak ere marka denak apurtu zituen: 4.300 bat lasterkari, tartean diabetikoez osatutako Team One Diabetes Challenge taldea. Sopelako Udalak ere babesten du Kosta Trail. ◀



Dohaintza-ekitaldia. © BDE

Leioako futbol-taldeak, apal



Leioako futbol-taldeak Jose Picon atzelaria fitxatu berri du. © LEIOA KIROL ELKARTEA

Sarrienako futbol-talde nagusiek ez dute ondo hasi aurtengo denboraldia. Egoitz Linazak zuzentzen dituen emakumeek hiru puntu metatu dituzte, hiru partidaren ostean. Igor Gordobilek gidatzen dituen gizonak ere makal dabilta, haiek ere partiden herena besterik ez baitute irabazi: sei partidatan, sei puntu atera dituzte.

Aste-akabu honetan, Leioako Emakumei gol zaparrada sartu die Mulier-Osasunak, Nafarroa Garaiko emakumezkoen futbol-talde berriak. Gorri-beltzak etxean nagusitu zitzaizkien uribekostarrei, 6-0 sendo batez. Linazaren neskek ahul jokatu zuten lehenengo 45 minutuan. 1-0 galtzen

joan ostean, 35. minutuan hiru gol jarraian sartu zizkieten. Eta, bigarren zatian ere, ez ziren erreakzionatzeko gai izan.

Behingoz, garaipena

Leioari dagokionez, gauzak beste modu batez ikusten dituzte. Izan ere, eurentzat, aurreko partida biren bolar txarra amaitzeko balio izan du Sarrienan jokaturako partidak. Getaferi 2-0 irabazi zioten; merezita, gainera. Era berean, garaipen horrek garrantzi handia izan dezake, aurreikuspen ez-korrenek baitiote Leioa aurtien ere jais-teko arriskuan egongo balitz, Getafe lehiakide zuzena izan litekeela.

info+: sdleioa.com

Errotabarri berritzeko, Espainiaren zain

Plentziako Kirol Elkartearen lehenengo taldeak puntu bakarra batu du, erregionaleko lehenengo mailan jokaturako partida bitan. Halere, horrek ez du kezkarik sortzen itsas hiribilduan, zuri-urdinek Errotabarrin ezin jokatzek baino.

Estreinaldia, Urdulizko Iparralde futbol-zelaian jokatu zuten. Bertako Udalak eta Gorlizkoak emandako babesagatik eskertuta dago Gorka Zuazo Plentziako presidentea. Hala ere, Errotabarrin entrenamenduak besterik ezin egitea arazoa da berarentzat: «ezin dugu erbestean luzaroan jarraitu». Zuazok espero du Errotabarri

zaharberritzeko lanak ahalik eta lasterren abiatzea. Udan egitekoak ziren, baina ezinezko bihurtu zen.

Jose Luis Gomez Kirol zinegotzi delegatuaren arabera, pasa den irailaren 15ean alkatea Euskadiko Kosta Demarkazioko buruagaz bildu zen, Errotabarriko eremuko kirol-instalazioak legeztatzeko bidean pausoak emateko. Udalak, Aldundiak eta Jaurilaritzak euren lanak eginda, Espainiako Ingurumen Ministerioaren baimenaren zain daude. Ordura arte, Plentziako Udalak ezin izango du ezelako obrarik egin bertan. Horregatik, bilera eskatu dio Plentziako Udalak Ministerioari. ◀



Pasa den martxoan, ehunka futbol-zale kaleratu ziren, konponbidea aldarrikatzeko.

Erandiotarrek irabaziz estreinatu dute liga

Erandiotarrak areto-futboleko taldeak estreinaldi gozoa izan du. Lehenengo taldeak garaipen argia lortu zuen zapatuan, Santurtzin, eta sailkapenean, bigarren kokatu da.

Egun berean, Erandiotarren bigarren taldeak denboraldiaurreko lagunarteko partida jokatu zuen Barakaldoko Beti Lagunak taldearen aurka. Irabazteko aukera izan arren, akatsek berdinketa eragin zuten.

Erandiotarrak A taldea 4-6 nagusitu zitzaion Santurtzi Bri, pasa den zapatu arrastian Karmen kiroldegian, Itai (2), Txutxi, Lander, Gari eta Igorren golei esker. Gainera, tantoek

emandako emaitza baino zabalagoa izan zen partidaren kontrola, zuri-urdinen ustez.

Lesioek eta hainbat konpromisok erandiotarren jokalaria-kopurua urritu zuten, bigarren taldeko hainbat kide zelairatu zen. B taldekoek egundoko beharra egin zuten.

Klubaren ustez, «denboraldi ona egiteko lehengaia badago, eta sortu zen urtean aurreikusi zitekeen baino ekarpen handiagoa egin dezakete talde filialaren jokalariek». Halere, areto-futboleko taldeak badaki «aurretik lan handia» egin beharra dagoela. ◀

info+: erandiotarraktaldea.jimdo.com

Leioan, eskubaloi proiektu berria abiatu berri dute

Pasa den irailaren 27an, domeka, Leioako Eskubaloi Eskola abiatu zuten Sakoneta kiroldegian. Halere, interesatuek domekaro izango dute eskola zabalik. Goizeko 09:00etatik aurrera, eskubalioaz zein askotariko kirol jardueraz gozatu ahal izango dute 4 eta 11 urte bitarteko neska-mutilek. Besteak beste, motrizitatea, koordinazioa, gorputzaren kontrola eta oreka landuko dituzte. Jarduerak doakoak dira, eta izena hainbat modutara eman daiteke: bertatik pasatuz, telefonoz edo posta elektronikoz. ◀

izen-ematea:

688 807 515/balonmanoleioa@gmail.com

Arraizak irabazi du Urduña Hiria herri-krosa

Maita Arraiza Santutxu Atletismo Taldeko korrikalari getxoxtarrak irabazi zuen domekan Urduña Hiria herri-krosaren XI. edizioa, iazko garaipena berretsiz. Arando Korrikalari Elkartek antolatutako lasterketan, Arraizak 40 minutu eta 12 segundo eman zituen 10.548 metroko ibilbidea egiteko. Bigarrena Onditz Iturbe laudiotarra izan zen, Arraizaren taldekidea; eta hirugarrena, Saioa Arkonada oñatiarra. Arraizak hasieratik izan zuen proba mendean, Iturbe taldekideari hiru minutu baino gehiago ataraz. Gizonezkoetan, Amurrioko Pablo Mas atletak irabazi zuen. ◀



Armintzan bertan ospatu zuten ABE Ligaren garaipena Baterako kideek, irailaren 19an. © BATERA

«Urteotako ahaleginak saria izan du azkenean»

Arkote arraun-taldeko beteranoek ABE Liga eta sei bandera irabazi dituzte aurtan; azken garaipenetik bost urte pasa ostean.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Plentziako Batera traineruaren eskifaia 25 arraunlari beteranok osatzen dute. Borja Amundarain Itxis entrenatzaileak eman digu horien berri.

Bost urte pasa dira, azken Liga irabazi zenutenetik. Zelan lortu duzue?

Azkena 2010ekoa izan zen, bai. Jende berria sartu da taldean, eta haieta-

ko askok arraunean ez zekien arren, entrenatuz eta behar teknikoa eginez ikasi dute. Azken urteotako handikap hori izan da. Arrauna bezalako kirol tekniko batean, hasieran eragozpen bihurtzen da hori. Baina zortea izan dugu, eta jende sendoa etorri da, traineruak aurrera egiteko wattak ere beharrezkoak baitira. Gainera, nahiko ondo ikasi dute arraunean. Hor egon da koska: sartu den jendea sendoa izan, eta ontziari potentzia eman izana. Horrez gainera, aurtan behar handia egin dugu maila fisiko zein teknikoan. Prestaketan ere, koxka bat gorago egin dugu.

Beteranoek eta arraunlari profesionalek duten prestaketa antzekoa da?

Bai, baina beteranoen entrenamenduak egun gutxiago eta intentsitate txikiagoa ditu. Arraunlari batek astean sei egunetan egin dezake lan. Guk, du-

“71 urte izan arren, gure beteranoena mutiko bat legez entrenatzen dabil”

gun adina izanda, martxora arte egun bat egiten dugu arraunean, eta martxotik aurrera, hiru. Bestalde, prestaketa orokorra ere egiten du bakoitzak bere aldetik: pisuak altxatu, korrika egin, ergometroan jardun, eta abar. Azkenean, intentsitateak gabiltza.

Horrek taupadak markatzen dizkizu. Normalean, %80an egin beharko genuke behar: niretzat, 170 taupada izan daitezke, baina senior batentzat, 200 izan ohi dira. Gainera, gure entrenamenduak lasaigoak dira.

Zelan zuen betetanorik beteranoena?

Aurtan gutxi egin du arraun, arazoak izan dituelako, baina entrenamenduetan ibili da, eta 71 urte izan arren, mutiko bat legez dabil, gogotsu.

Zer sentitu zenuten liga irabaztean?

Ilusio handia. Talde lehiakorra geneukanez, hasieran geure buruari banderak irabazteko eta ligan borrokatzeko helburuak jarri genizkion. Baina zaila da, bost urte egon gara hori lortzeko. Maila altua da. Denboraldia ondo hasi genuen, irabazten, eta lehenengo postuan izan gara liga osoan. Halere, beldur izan gara, edozein unetan huts egin genezakeelako. Azkenean, oso pozik egon gara zuzendaritzakoak, teknikariak eta arraunlariak, urteotako ahaleginak saria izan duelako.

Irabazteaz gainera, liga mendean izan duzue, 12 banderatik 6 etxera ekarrita, ezta?

Ez da hainbesterako! Bigarrenari berderatzi puntu atera dizkiogu. Nahikoa da, baina arraunean hainbat faktorek eragiten du, tartean zorteak. Estropadaren batean baliza sartu zaigu, denbora-zigorra jarri digute, eta abar, baina beste klubei ere gertatu zaien legez. Batzuetan, estropada irabaztear egotetik laugarren geratzera pasa zaitezke. Bigarrena, puntu bira ere izan dugu. Abantaila izan dugu, baina mendean izan dugula lar esatea dela uste dut.

Zelan ospatu zenuten garaipena?

Armintzako azken estropadaren egunean bertan ospatu genuen. Urtero egiten da han klub denen arteko bazkaria, eta ligaren eta estropadaren sariak banatzen dira. Taldekide gehienak batu ginen, eta jaia egin genuen, ospatzeko. Orain, denboraldi amaierako bazkari bat egingo dugu. ◀

info+: ttiki.com/341715

I

Iñaki Bítxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

**Jarrai
gaitzazu:**



hirukaEus



@hirukaEus

www.hiruka.eus

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37



ARHANE
ALGORTA
Familiaren partez

Zorionak, Arhane!!!
Urriaren 2an 5 urte egin ditu gure
etxeko neskatxoak. Muxu handi bana
Eneko, ama eta aitaren partez!



OIHAN
GETXO
Familiaren partez

Zorionaaak, Oihan! Zure eguna gozatu
ezazu! Asteburuan ospatuko dugu ezin
baino hobeto!
Milaka muxu, guztion partez!



IBONE
GETXO
Familiaren partez

Zorionak gure Iboneri, 12 urte jadanik...
neska polit, zintzoa ta kirolari horri!!
Familia osoa zutaz harro dago.
Jarraitu horrela. Mila muxu!



MIKEL
ALGORTA
Bizilagunaren partez

Zorionak, Txati!!!!!!
Astea ondo hasiko duzulakoan nago!
Jarraitu jator ta zoriontsu izaten. Egun
ederra izan ta mosu handi bat!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Ez dago istoriorik une zehatz batean hasten denik,
baina istorio denek behar dute noizbait hasi. Zuk
aukeratu noiztik kontatu gura duzun.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Betiko aurpegiak ikusiko dituzu, betiko lekuetara
baldin bazoaz. Aldaketaren bat gura baduzu, hasi
zure ohiko jarduerak aldatzen!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Merkataritza-zentrora zoazenean, behar baino ge-
hiago erosteko tentazioa daukazu. Ekin zure kon-
sumismo konpultsiboaren zergatia bilatzeari.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ikasturte berrirako zure ordutegia erabakitze or-
dua da. Gauza bat da ondo pentsatzea, eta beste
bat, oso ezberdina, harriak asperraraztea.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Badira zoriontsuak direnak. Beste batzuk, oso zo-
riontsuak dira. Eta aste honetan, ordea, zu bizi zai-
tezke bi multzo horiek baino hobeto. Adi egon!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ez dago esne-botilari begira egon behar jakiteko
beteta, erdi-beteta, erdi-hutsik ala hutsik dagoen.
Eskua poltsikoan sartuz jakin dezakezu, erraz.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Liburuak dira berben sekretuak argitzeko tresnarik
bikainenak, baina kontuz! Denek ez dute balio ber-
ba denentzat. Ono aukeratu zer erabili.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Makina bat gauza gertatzen da egunero, kale kan-
toiaren bestaldean. Haietako istorio batzuk zure in-
tereseke kontuak ere badira.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Irudi politak ikusteko sasoia da. Mota askotakoak
izan daitezke, baina seguru aski argazkiak izango
dituzu hurbilen.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Ez du batere ondo euskaraz berbarik egiten, bai-
na ikasteko ahalegin sutua egiten dabil. Zoriondu
egizu ipintzen duen interesagatik.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Plazera ei den horietako bat murriztu beharko duzu
zure osasuna hobeto zaintzeko. Lasai egon, abisua
ez da sexua dela-eta; alkoholagatik baino.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Futbol-emankizunen gerra amaitu bitartean, nekez
astinduko duzu router-a. Eskumara zein ezkerrera
mugituta ere, astiro eta pixelatuta ikusiko da.

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal
honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Musiketan zikloa

Boggie-ren kontzerturako
5 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Urriak 11, 18:30 BBK Aretoa (Bilbo)

Producciones Serranoren ekimenez, Boggie-k eskainiko duen emanaldirako
sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 6a baino lehenago,
helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Sudokua

5			2					9
7				8			1	
8				4		2		
			6		3	9		4
							7	
		4	7			6		5
3						5		
		8		1				
	2				6			

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki
denek agertu behar dutela zutabe, lilara eta
azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

1	6	7	9	3	8	5	2	4
2	9	3	4	1	5	8	7	6
8	4	5	2	7	6	9	1	3
5	8	9	1	6	7	4	3	2
3	7	1	8	2	4	6	5	9
4	2	6	3	5	9	7	8	1
7	5	2	6	4	1	3	9	8
9	1	4	5	8	3	2	6	7
6	3	8	7	9	2	1	4	5



«Goazen, gudari danok»

Eskualdeko lau gudari hil zituzten Zirardamendiko batailan, 1936ko irailaren 25ean. Emeterio Llabori, Sabin Atutxa, Eusebio Gaubeka eta Juan Agirre milizianoek zein ehunka soldadu gehiagori esker, matxino faxistek ez zituzten hainbat hilabetetan hartu Gipuzkoa eta Bizkaia.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Pasa den irailaren 20an, senideek eta erakundeek omenaldia egin zieten Elgoibarren, 1936ko gerrako Zirardamendiko batailan hildako euskal gudariei. 1936ko irailaren 25ean, Arana Goiri batailoiko hamalau gudari hil zituzten Zirardamendi-Aiastia (San Migel) eta Elgoibar arteko frontean: Juan Agirre Bilbao (Mungian jaioa, baina Astrabuduko EAJko Udal Uri Batzarrean afiliatua), Emeterio Llabori (Erandio), Sabin Atutxa Olabarri (Getxo), Eusebio Gaubeka Gibelondo (Leioa), Jose Txintxurreta, Paulino Beraza, Juan Zabala, Blas Larrazeleta, Ambrosio Etxebarria, Felipe Elorriaga, Imanol Etxebarria, Marcelino Gandarias, Miguel Palacio eta Felix Arbulu.

Frontera joan eta hil

Gazte haiek aurreko egunean atera ziren Bilboko Iturribide kaleko Patronatutik, Mola jeneralaren gerra-taldeen erasoaldia geldiaraztea helburu. Armada kolpistak irailaren 21etik hartuta zeukan Elgoibar, eta beldur handia zegoen handik Bilbora denbora

gutxian ailega zitekeelako. Hainbat herri, hiribildu eta elizetako semeak joan ziren frontera: Erandio, Mungia, Leioa, Getxo, Santurtzi, Bilbo, Barakaldo, Portugalete, Begoña eta Abando.

Gudari haietako batzuk Zirardamendiko borrokal dietan hil zituzten, eta hobi komunetan ehortzi zituzten, harik eta 2012ko ekainean hobitik atera arte. Orain dela 79 urte gudariak eurek egin zuten ibilbide bera egin zuten, pasa den irailaren 20an, gudari haien hainbat senidek, milizianoek gorazarre egiteko gorazarre ekitaldian parte hartzeko.

Sabino Arana Fundazioak jakinarazi duenez, iraileko azken aurreko domekan urtero egin gura dute ekitaldia, gudarien ahalegina eskertu eta oroitzeko. Lore-eskaintza egin zieten Zirardamendin: inguru horretan hil zituzten gudarien omenez, 1952. urtean jarritako gurutzan. Izan ere, aurretik, frankismo garaiko hainbat hamarkadatan, Jose Landa eta Jose Maria Otxoa de Txintxetru gudariak 1936ko gerran hildako lagunei omenaldia egin zieten modu berean.

Eusko Jaurlaritza ahalbidetu zuten

«Gudari haien balentria heroikoak frankisten konkista atzeratu zuen, eta, horri esker, lehen Eusko Jaurlaritza eratu zen Gernikan», nabarmendu du Sabino Arana Fundazioak: «Frontea, zenbait hilez egonkortzea lortu zuten. Horrenbestez, Autonomia Estatutua, Madrilgo Gorteetan urriaren 1ean onetsi zutena, eraginkor bihurtu ahal izan zen, eta urriaren 7an lehendakari aukeratu zuten Jose Antonio Agi-

Emeterio Llaboriren senideei dei egin zieten, oraindino galduta dauden gudariak ahaztuta gera ez daitezen

rrer, zeinek Gernikan bere kargua zin egin ahal izan baitzuen. Horretara, lehenengo Eusko Jaurlaritzak armada bat eregitea lortu zuen, baita milaka eta milaka errefuxiatu (umeak batez ere) sorotsi zituen laguntza-sare bat ere, unibertsitate bat, euskarazko egunkari bat, hezkuntza-sare bat, eta abar. Hori guztia 1936ko urria eta 1937ko ekaina bitartean».

Beraz, Fundazioak nabarmendu duenez, goian aipatutako dena «ez zen posible izango Jose Antonio Agirrek lehendakari kargua zin egiteko betarik izan ez balu. Beraz, Agirreraren Gobernuaren lana Zirardamendin bizia emandako haiengan oinarritzen



Ezkerretik eskumara:

Aranzadi Zientzia Elkartek 2012an aurkitutako lau hilotzetako bi Sabin Atutxarena eta Eusebio Gaubekarena izan ziren. GIPUZKOAKO EAJ

Goazen Gudari Danok filmaren eszena bat. BARREN-BALEUKO

Zirardamendiko gudariei pasa den irailean egindako gorazarrea.

© SABINO ARANA FUNDAZIOA

Gudarien senideak iaz, Elgoibarren. BARREN

dela badiogu, ez gara esajeratzen edota gezurretan ari. Izan ere, gudari haiek, baita Euskadiko mendi eta kaleetan borrokatu zirenak ere, izan ziren lehen Eusko Jaurilaritza osatzea ahalbidetu zutenak». Iñaki Goiogana historialariaren ustez, «hasiera batean, gatazka hartan jazo ziren gudu ugarietako bat besterik ez lirudikeenak azken buruan esangura garrantzitsua izan zuen Euskadirentzat. Gatazka hura mugarri bat izan zen, bere aurrekoa eta ostekoa bereizi zituen, eta neurri handi batean baita gure herriaren historian eragin handia izango zuena ere». Gainera, Goioganak ikertu duenez, «batailan parte hartu zuen konpainia batek zabaldu zuen orduantxe *Eusko gudariak* kanta».

Izan ere, Kortabarria konpainiaren burua Bediaga kapitaina zen. Sabino Arana Fundazioaren arabera, «esaten da Bediagak bertako gudari biri entzun ziela *Eusko gudariak* abesten, eta hain gus-tuko izan zuen konpainiaren ereserki gisa proposatu zuela». Handik hilabetera zabalitzen hasi zen ereserki moduan, Zirardamendiko gudan; eta apurka-apurka hedatuz, gaur arte iraun du. *Eusko gudariak* Jose Maria Garate Azkarraga getxoztarrak idatzi zuen, 1932an.

Gorpuzkiak

Aurtengo ekitaldiaren antolatzaileek gogorarazi gura izan zuten euskal soldadu gazte haien ahalegina, eta azpimarratu zuten memoria historikoa «fun-

tsezko» bidea dela elkarbizitza eta adiskidetzeari sustatzeko. 2012an, berriz, Aranzadi Zientzia Elkartek hobi batean lurperatuta zeuden lau gudarien hilotzak atera zituen. Senideen artean DNA frogak egin ostean ziurtatu ahal izan zuten, gorpuetako bi Sabin Atutxarena (Getxo) eta Eusebio Gaubekarena (Leioa) zirela, biak Arana Goiri batailoiko Garaizabal konpainiako boluntarioak. Elgoibar 1936 elkarteak bul-tzatu zuen ekimenak, Victoriano Agoteren azalpenak

«Agirreren Exekutiboaren lana Zirardamendin bizia emandako haiengan oinarritzen dela badiogu, ez gabilta gezurretan»

jarraituz. Bere aitak, bertoko baserritarrak, lurperatu zituen gudariak.

Gogora ekartzeko ekimenak

Iaz, osterak, makina bat ekimen antolatu zuten Zirardamendin eroritakoak gogoan izateko: *Goazen gudari danok... Askatasun-bidean Zirardamendi, Aiastia (San Migel), Elgoibar 1936* erakusketa ibiltaria, besteak beste Erandion eta Leioan paratu zena; Patxi Juaristi, Josu Txueka eta Francisco Etxeberría EHUKo irakasleak eta Aitor Esteban eta Iñaki Goiogana Sabino Arana Fundazioaren kolaboratzaileak idatzitako

liburua; Iban Gonzalezek zuzendutako *Goazen gudari danok* film dokumentala; eta hobien aurrean Gernikako Arbolaren kimu bat landatzea, Iñigo Urkullu lehendakaria buru izan zela.

Etorkizuneko elkarbizitza eraikiz

EAEko mandatariak azpimarratu zuen gudari gazte haien sakrifizioak «frankisten konkista gerarazi zuela, eta Gernikan lehenengo Eusko Jaurilaritza hura eratzea ahalbidetu zuela». Lehendakariak, era berean, «esker ona» eman zien, eta «iraganera begiratzen duen ekitaldi honek Euskadiko etorkizuneko elkarbizitza eraikitzen duela», azpimarratu zuen. «Egia, justizia, ordaintza eta berriro ez dela gertatu-ko bermatzea» agindu zuen, «diktadura frankistak ekarri zuen bidegabekeria historikoa aitortzen duen oroitzapen-politika publiko bat» sustatuz.

Memoria historikoa

Memoria historikoa berreskuratzeko asmoz, *Goazen gudari danok...* erakusketaren arduradunak Juan Agirreren senideak izan ziren Erandion: Francisco Javier Rasines Agirre, Felipe Agirre eta Maria Jesus Rasines Agirre. Hori baliatuz, dei bat egin zieten Emeterio Llavori erandioztarraren senideei, edo horiek ezagut ditzaketenei. «Beharrezkoak dira, oraindino galduta dauden gudariak ahaztuta gera ez daitezen, eta egunen batean haren gorpuzkiak identifikatu ahal izateko», esan zuten orduan. ◀

Lehen/Orain

Erandio, 1983



Erretratua

Uxune Iriondo Urbistazu

Getxoko (Andra Mari) bizilaguna eta herri-militantea



Herri-mugimenduan ibilitakoa da Metro Bilbaoko langile getxoztarra: errepresioaren kontra, langile borrokan, eta Bilgune Feministan, barbarako.

S ortzez bilbotarra izan arren, getxoztartzat hartzen du bere burua Uxune Iriondok. Izan ere, bost urte zituela Getxora (Andra Mari) etorri zen bizitzera, gurasoak. Ordutik bertan bizi da, eta urte hauetan guztietan, herri-mugimenduko saltsa guztietan ibili da. Bost neba-arreben artean bigarrena da, eta azaltzen duenez, «etxean betidanik ikusi ditut gurasoak zerbaiten alde lanean, militatzen». Aitortzen du Euskal Herriaren eta euskaldun izatearen sentimendua etxean «bizi» eta «normaltzat» izan duela. Inguru horretan, politikak bere bizitza «markatu» egin duela dio: «bizitza borroka gisa ulertzen dut; niretzat borroka balio positibo bat da, bizitzeko indarra ematen didana». Gaztea zenean hasi zen herri-mugimenduan lanean, eta ordutik, bertan jarraitzen du, borrokatzen; «borroka-sen hori bizi izan dut beti». Amnistiaren aldeko batzordeetan ekin zion bide horri. Espetxez espetxe ibili

zen 15 urte luzez sakabanaketa salatz, eta bertan ezagutu zuen bere senarra: Mitxel. Ondoren, Euskotreneko langile zela, 90eko hamarkadan Metro Bilbaon hasi zen euskara itzultzaile, eta bertan euskalgintzaren aldeko borroka ekin zion, «euskara dagokion lekuan jartzea nahi izan dut beti».

“ Zerbaitetan sinisten dudanean, ideia hori gorentasunean sentitzen dut ”

Era berean, LAB sindikatuko afiliatua izanda, orain dela bost urte enpresabatzaordean sartzea egokitu zitzaion, langileen alde borrokatzeko. Bide horretan, emakume langileen «egiturazko defizita» murrizteko borroka hasi zuen, eta, hala, feminismogaz egin zuen topo, berdintasunaren alde Bilgune Feministagaz lanean hasiz.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua